

UZTARRIA GUKA

IRENE LARRAÑAGA

ERRETRATUAK AUTOERRETRATU



I N N O V A

AZPEITIA

HORTZ KLINIKA

PADI

7 ETA 15 URTE ARTEKO
HAURREN HORTZAK
ZAINZEKO PROGRAMAN
PARTE HARTZEN DUGU

Jose Artetxe 5 ☎ 943-02 59 55

Miele

MILAR LARRAMENDIN
AURKI DITZAKEZU
MIELE PRODUKTUAK

MILAR LARRAMENDI

Etiketresna elektrikoak

**Cooking
& Chef**
SUKALDE GUREA

DESKARGATU
PROMOZIOAK



www.milar.es

webgunean ere aukera zabala

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA

943-85 18 97

www.milar.eus

Edozein lorategira egokitzen den *atsedenleku freskagarria!*



EREMU ZAILAKETAN
EREBRANG DAITEZKE!



EZ DA ORRARK
KOIN BOKAR



DOTOREZIA ETA TEKNOLOGIA
BATERATZEN DAITE



Zure ametsetako gunea!

- ✓ Eraikitzeko eta kentzeko erraza
- ✓ Garraio eta muntaketa erraza
- ✓ Erdi lurperatuta jartzeko aukera
- ✓ Alkapadun eremuatarako aproposak
- ✓ Ez duite obra baimenik behar
- ✓ Lorategirako altzariak ere izan daitezke
- ✓ 5 urteko garantia materialetan
- ✓ Espazio bakoitzera egokituta





UZTARRIA 258

2023-MARTXOA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | |
|--|--|
| <p>5 Iritzia Gorka Zabaleta,
<i>'Gu' zabalago bat.</i></p> <p>6 Zu zeu Oihana Agirre,
txakurkrosean ibiltzen da.</p> <p>8 Nire leihotik Jon Olaizola,
<i>Naturaren deia.</i></p> <p>10 Iritziak Irati Aranguren,
<i>Amatasuna-laneratzea; Hiromi Yoshida, Tresna baliagarria.</i></p> <p>12 Elkarrizketa Irene Larrañaga,
kazetaria eta argazkilaria.</p> <p>18 Iritzia Oier Etxeberria,
<i>Zuzentasuna.</i></p> <p>20 Erreportajea Mendizaleen
tabernan 36 urte.</p> | <p>24 Guka, Parean eta pareko
Mirene Begiristain eta Ioritz Aizpuru.</p> <p>33 Lehiaketa</p> <p>34 Erretratua Antonio Urbieto,
autobus gidaria.</p> <p>38 Plazan Bazan</p> <p>40 Iritzia Miren Segurola,
<i>Elkarrekin ibiltzen.</i></p> <p>42 Atzera begira Uztarrria kultur
koordinakundea sortu zela 25 urte.</p> <p>46 Iritziak Amaia Alberdi,
<i>Haize bidezko polinizazioa;</i>
Ignacio Arakistain,
<i>Efemeridea ate joka.</i></p> |
|--|--|

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarrria@uztarrria.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria:
Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea:
Julene Frantzesena
Ihintza Elustondo
Maialen Etxaniz

Mailo Oiarzabal
Nerea Uranga
Diseinu arduraduna
Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
Zenbaki honetako
kolaboratzaileak:

Elena Margüello
Jon Olaizola
Irati Aranguren
Hiromi Yoshida
Oier Etxeberria
Miren Segurola
Amaia Alberdi
Ignacio Arakistain
Arnaiz Rubio Aprea

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2.500 ale



'Gu' zabalago bat



GORKA ZABALETA UKTKO ZUZENDARI NAGUSIA

Lau urte bete dira Urolako Komunikazio Taldea (UKT) sortu genuenetik, aurrez, mende laurdenez, gure herrietan lanean aritu ziren euskara eta kultur elkarteek lekukoa hartuta. Urola Kostako eta Urola Erdiko hedabideok indarrak batuta ari gara lanean orduz geroztik, gure herritarrei tokiko komunikabide onenak eskaintzeko, etengabe eraldatzen ari den gizartearen behar berriei ahalik eta ondoen erantzuteko. Lehen euskara edo kultur elkarte ginen; orain, irabazi asmorik gabeko kooperatiba gara. Eraldatu gara indarberritzeko, gure izateko arrazoiari eutsi ahal izateko: gure errealitatea guretik kontatzeko, herritarrekin eta herritarrentzat, bertako begiekin, eta euskaraz. Eta bakarka baino hobeto elkarrekin, gu zabalago batetik.

Egin duguna

Beraz, 2019an elkartu ginen Karkara, Baleike, Uztarrria, Maxixatzen, Urola Kostako Hitza eta Erlo Telebista, eta orain 33 langilez osatutako komunikazio talde multimedia bat gara. Lantalde bakarrean antolatuta, lau aldizkari, egunkari bat, telebista bat eta sei webgune argitaratzen ditugu, eta milaka dira egunero gertuko albisteak gure bitartez jasotzen dituzten herritarrak.

Lau urte hauetan gure aldizkariak hobetu ditugu, telebista indartu dugu eta atari digitaletako ekoizpena biderkatu dugu. Aurrerapauso handia egin dugu eduki digitaletan eta bideogintzan eta, aldi berean, ahalegin handia egin dugu paperezko eskaintzari merezi duen garrantzia emateko. Azken finean, elkarteengandik oinordetzan jasotako hedabideei gure onena ematen saiatu gara.

Estrategia berria

Baina ez dugu atzera begira lo gelditu nahi. Gizartea oso azkar ari da aldatzen, informatzeko eta komunikatzeko molde, euskarri eta joera berriak ari dira nagusitzen, eta gure ardura da eraldaketa horri bizkor eta indarrez heltzea, euskarak tokiko informazioaren plaza gal ez dezan. Eta erronkari aurre egiteko, prest daukagu gure bide-orria: Guka estrategia.

Zer dago Guka estrategiaren oinarrian? 'Gu' zabalago eta indartsuago bat sortzeko beharra. Gure herrietan sendo sustraitutako komunikazio taldea gara, eta gure herriekiko konpromisoa sakondu nahi dugu: herritar informatuak eta aktiboak nahi ditugu, gertuko komunitatearen ahalmenetan sinetsiko dutenak; herri biziak

eta euskaldunak nahi ditugu, garai berrietara egokitzeko gai direnak. Eta horretarako, ezinbestekoa da euskarazko toki komunikabideak eraldatzea eta indarberritzea.

Irakurle digitalak

Gustatu ala ez, gure gizartea digitala da dagoeneko. Azken hamarkadan gertatu den iraultza teknologikoak eragin sakona izan du gure egunerokoan, zer esanik ez informazioaren eta komunikazioaren esparruan. Gaur egun, UKTKo hedabideen artean, webguneak dira, alde handiz, irakurle gehien dauzkaten hedabideak. Esate baterako, joan den urtarrilean, 860.000tik gora ikustaldi izan zituzten gure sei webguneek. Egunero milaka zarete gure irakurle digitalak, eta adin tarte guztietakoak. Alde horretatik, arrakastatsua izan da gure webguneek egin duten bidea.

Bazkideak, paperean

Bestalde, oraindik ere paperezko argitalpenak ezinbesteko erreferentzia dira gure bazkideentzat eta harpidedunentzat. Paperezko jaio ginen duela 25-30 urte, eta horrek erabat ezaugarritu gaitu gaur arte. Gure ordainpeko bazkide fidelenek paperezko aldizkariari diote atxikimendua,

haiek ere, albiste gehienak dagoeneko digitalean irakurtzen dituzten arren. Hori bai, gauzak diren bezala, adin batetik beherakoak (40 urte?) oso gutxi dira paperezko hedabideen ohiko kontsumitzaile.

Kosteen garestitzeak ere zaildu egiten du paperezko argitalpenen etorkizuna. Esku artean daukazun aldizkarian igerriko zenuen aldaketarik. Orain arte 48 orrialdekoa zen aldizkaria, eta beste 16 orrialde zeuzkan Guka gehigarriak erdian. Aurrerantzean, 48 orrialdeko argitalpen bakarrean jasoko duzu dena.

Erabaki horrek zerikusi zuzena du inprentako gastuek azken bi urteotan izan duten gorakada handiarekin. Paperaren prezioa bikoiztu egin da eta aldizkariak inprimitzea %30 garestitu da pandemia ondoren. Bestalde, azaldu beharrik ez dago zenbat garestitu den bizitza oro har; guk ere neurriak hartu behar izan ditugu gure diru kontuak nola edo hala orekatzeko.

Erabaki dugu gastuen igoera neurrigabearen erdia kooperatibak berak hartuko duela bere gain, eta beste erdia bazkide kuotak egokituz eta inprentako gastua murriztuz berdintzea. Dena den, edukirik ez da galduko, paperean inprimatu gabe gelditzen dena digitalean eskainiko dugulako.

Bestalde, kazetaritza eduki landuei emango diegu lehentasuna aldizkarietako orrialdeetan.

Produktutik proiektura

Hortxe, beraz, hedabideon erronka: nola zabaldu gure bazkide multzoa, betikoei eutsiz eta belaunaldi berriak erakarriz, ekonomikoki ere bideragarri izateko? Nola lortu babes handiagoa gure irakurleengandik? Gure iritziz erantzuna proiektuaren xedean dago, produktutan baino.

Produktuak, euskarriak, moldeak eta tresnak aldatu egingo dira gizartearen joeren arabera; kontua da egokitzen jakitea eta garai bakoitzean gure izateko arrazoia arrakastaz bete ahal izatea. Horretarako, proiektua babestuko duen komunitate zabalagoa behar dugu, tokiko informazioa euskaraz nahi duten kideak nahi ditugu, edozein dela euskarria.

Segurunez, honezkero ohartuko zinen, irakurle, aldizkari honen azalean badela aldaketa bat. Betiko markarekin batera, hor ageri da Guka, bide berriaren iragarle. Hurrengo hilebeteetan azalduko dugu xehetasun gehiagorekin zer datorren, zergatik eta zertarako, baina mezua garbia da: herri, talde, eragile eta herritar

bakoitzaren beharrei erantzutera dator; euskarri, tresna eta kidetze aukera berriekin, irakurle gehiagorengana iristeko, herritar gehiagoren atxikimendua lortzeko, tokian tokiko komunitateak indartzeko.

Gure egitekoa ez da aldatu, eta ez da aldatuko: tokiko kazetaritza euskaraz. Gainontzeko guztia aldagarri da, helburua lortzeko mesedegarri bada. Lehen hainbat elkarte ginen, orain kooperatiba batean antolatu gara. Elkarrekin eskuzabal jokatu dute, izan berri baten mesedetan. Langileok ere apustu handia egin dugu, besteak beste, kooperatibari gure diru ekarpenak eginez. Hurrengo hilebeteetan, pixkanaka, estrategia berriak hartuko du lekukoa. Herriz herri jarraituko dugu kazetaritza egiten, baina gu zabalago batetik, Guka egin nahi dugulako. ■■■

"TOKIKO INFORMAZIOA EUSKARAZ NAHI DUTEN KIDEAK NAHI DITUGU, EDOZEIN DELA EUSKARRIA"

Oihana Agirre: "Bere lana eskatzen du probetan txakurrarekin aritzeak"

TESTUA: **JULENE FRANTZESENA**

ARGAZKIA: **ARITZ MUTIOZABAL**

Aurtengo Euskal Herriko txakur krosen denboraldian "uste baino hobeto" moldatu da Oihana Agirre (Zumaia, 1983). Lortu du proba batean baino gehiagotan podiumera igotzea, baita osasun arazoak tarteko izan duen etena eta horrek sortutako ziurgabetasuna gainditzea ere.

Noiz eta nolatan hasi zinen txakur krosetan parte hartzen?

Pandemia aurretik. Senarra hasi zen lehiatzen, eta Hondarribiko bi eguneko lasterketaren lehen zatian –gauekoan–, min hartu zuen. Asteburua pasatzera joanak ginen hara, eta bigarren zatia, hurrengo egunekoa, neuk egingo nuela esan nion. Egia esan, beldurra ematen zidaten txakur krosek, baina probatzea erabaki nuen, eta ondo moldatu nintzen. Hura izan zen nire lehen proba.

Zeri zenion beldurra?

Errespetua ematen zidan; izan ere, txakurrarekin zure erritmotik kanpora joaten zara. Baina gustura ibili nintzen, eta ligako gainerako lasterketetan parte hartzen jarraitu nuen harrezkero. Gero, baina, pandemia etorri zen, eta...

Noiz itzuli zineten lehiara?

Iaz, senarra txakur batekin eta ni bestearekin. Fundamentuarekin hasi ginen, baina lasterketa batzuen ostean COVID-19a harrapatu genuen, eta akabo; gorputzak ez zidan erantzuten... Haren ostean tiroideseko arazoekin hasi nintzen, eta oraindik ere tratamenduan segitzen badut ere, hasi naiz nire onera etortzen. Gogoz itzuli nintzen, presiorik gabe eta disfrutatzeko xedez; entrenatu ere tamainan egin dut.

Entrenatzen duzunean, nolako saioak egiten dituzu?

Txakurra lotuta dudala gutxi aritzen naiz, nahiz eta batzuetan hala aritzen garen lasterka.

Nolako txakurra duzu?

Bi ditugu; iaz batekin aritu nintzen eta aurtengo bestearekin. Arra da aurtengo lasterketetan parte hartu dudana txakurra, eta oro har, arrak emeak baino harroagoak direla esango nuke, baina

mainontzi samarra da gurea. Emeak finagoak dira, jarraikorrak.

Zer egin behar da korrikalaria eta txakurra koordinatuta aritu daitezen?

Ez da erraza, eta txakur batetik bestera izugarrizko aldea dago; denek ez dute balio tiratzeko. Arraza batzuetakoak probetarako iaioak dira, eta berdin zaie nor den haiekien joaten den korrikalaria. Beste batzuek ez dute beti modu berean tiratzen, gurek adibidez, ehiz txakurrak baitira. Duela aste batzuk Zierbenan (Bizkaia) izan genuen lasterketa. Txukun egin nahi nuen, denboraldiko azkena zelako guretzat. Orain arte proba denetan oso fin aritu da txakurra, baina egun hartan paseoa ibili zen aurreneko bi kilometroetan. Auskalo zer pasatu zitzaion... Ondo bukatu genuen proba, baina...

Feeling-a izatea garrantzitsua da, beraz?

Bai, bai, oso. Gure txakurrek ez dute tiratzen semeekin doazenean; bai, ordea, ni aldamanean baldin banoa. Uste dut egunero izan behar dela *feeling*-a, eta horren arabera erantzuten dutela txakurrek probetan.

Gehiegi tiratzen badu, zer?

Askotan tiratzen dute gehiegi. Txakurrik gabe aritu izan banintz, behin baino gehiagotan emango nukeen amore, baina txakurrarekin ez; txakurrarekin, lehertu arte, hortxe. Hori bai, beste anbizioz gabe ateratzen gara probetan; ondo irteten badu, ederki, eta bestela ere bai. Lasterketak motzak izaten dira, baina bere lana eskatzen du txakurrarekin aritzeak, eta lasterketak oso leherkorak izaten dira. Krosetan adina gozatzen dut txakurrarekin mendi buelta bat eginda; hobby bat da guretzat probena.

Proba gogoangarriak bai?

Zumaiakoa berezia da, etxekoa delako, baina ez naiz oso ondo moldatzen ibilbide horretan. Izan ere, oso laua da, aldatu batzuk badituen arren. Ni hobeto moldatzen naiz ibilbide malkartsuagoetan, Zierbenakoa gisakoetan, adibidez. Bestalde, ikaragarri gustatzen zaizkit gauez egiten diren probak. ■



Naturaren deia



ARGAZKIA ETA TESTUA: JON OLAIZOLA

Askotan mendietara igotzearen zergatiak erantzun arrazional bat ez badu ere, badu zerbait berezia pertsonengan, makina bat jende joaten baita egunero erronka pertsonal, kirol ala entretenimendu gisa.

Mendia ez baita harri pilaketa soil bat. Norberak ematen dion garrantziak eta xedeak egiten baitu mendia mendi.

Bizitza bezalakoa da mendira igoera nahiz jaitsiera. Arriskuz, trabaz eta tranpaz josia, non askotan bideak berak amaierak baino gehiago erakutsi ohi duen.

Naturara joateko, mendira igotzeko, jasotzen den barruko dei horrek garbi egiaztatzen du ez dela noizbehinka bisitatzeko toki bat soilik, beharrezkoa dugun etxea baizik. ■■■







Amatasuna-laneratzea

Gaueko hamaikak dira, lo hartu duzu eta oheratu egin gara. Esnatu zara, esnatu gara, titia hartu duzu, lokartu gara. Itzartu gara, loak hartu nau. Lokartu zaitut. Esnatu zara, lo hartu duzu. Iratzarri zara, titia nahi zenuen; asebeteta lo hartu duzu eta oheratu gara.

Esnatu zara, eta jostari zaude sehaskan. Orain bai, amaitu da zure gaua, igarri dut. Pertsianaren zirrikitutik datoz izpiak, goxoki argitzen dute gure logela. Ederra da horrela esnatzea, eguzkiak goizean goizetik ongietorria egiteak eguna indarrez hasten laguntzen digu. Hara, goizeko hamarrak. Leihotik ikusten dugun eskolako haurrak jada klasean daude; gu oraindik pijametan, lasai ederrean.

Sareta ireki dut gelan argi gehiago sar dadin, eta dagoeneko bakarrik jostatzen aspertzen hasi zarenez, besoetan hartu zaitut. Zatoz nire ohera. Gosaltzeko garaia da, eta amaren bular epela goxoki besarkatu duzu, nik ere desiraz sentitzen zaitut. Azala azalaren kontra, laztana laztanaren truke, biok etzanda, biok eroso, biok goxo-goxo.

**EGUNA GURE PREMIEI
ETA DESIREI AHALIK
ETA KASU GEHIEN
EGINEZ
IGAROTZEN DUGU**

Halaxe hasi dugu eguna. Zer egingo dugu gero? Auskalo. Egokitzen saiatzen gara minutuz minutu. Eguna gure premiei eta desirei ahalik eta kasu gehien eginez igarotzen dugu. Zer nahi dugu? Zer behar dugu? Zure eta gure ongizatea da lehentasuna.

Hainbat hilabete igaro dira "pagotx" horretan bizitzen hasi ginenetik. Orain, ordea, nabari dut badatorrela gozamen honen amaiera. Amaitu dira amatasun baimenak, amaitu dira oporrak, amaitu dira edoskitze baimenak eta amaitu dira eszedentziak. Ama lanera doa.

Baina nork du gure etxean ama lanera joateko premia? Amak? Haurrak? Aitak? Nork? Zer behar dago ama etxetik desagertzeko? Maite dut nire

HAUXE BAI JENEROA!



HAN ETA HEMEN



HIROMI YOSHIDA

Tresna baliagarria

Euskaraz ikasten ari zen irakasle batek esan zidan: "Irakasle izateko euskaraz jakitea eskatzen digute. Beraz, behartuta ari gara euskara ikasten". Ofizio askotan eskatzen dira lanerako baldintzak, euskaraz jakitea ere horietako bat besterik ez da. Lanpostu baterako ingelesez jakitea eskatzen denean, baina, iruditzen zait oso jende gutxi esango duela "ingelesez jakitera behartu" dutela. Euskaraz behartuta ikasiko dute, baina ingelesez ez. Zergatik? Batek erantzungo luke: "Ingelesa mundu errealean edota birtualean jende ugari darabilen hizkuntza denez, ikastea merezi du. Euskara, ordea, eremu txikiko hizkuntza da, eta euskal hiztun guztiek erdaraz ere badakitenez, ez dugu ikasi beharrik".

Erantzun horrek ondo adierazten du, azken finean, hizkuntza komunikaziorako tresna bat dela. Eta bakoitzak berareztat praktikoagoa, erosoagoa den tresna aukeratzea normala da.

Euskal Herrian sustraituta bizitzeko eta edozein gauzaz gozatzeko balio ikaragarria du euskarak, ordea. Gainera, hizkuntza ez da komunikatzeko tresna hutsa, beste zerbait ere bada. Horri buruz beste batean hitz egingo dugu. ■

lana, eta badut nire ikasleekin gozatzeko gogo. Baina non geratuko dira hamarrak arte lo egin genezakeen egunak? Gau txarra igaro duzula eta, hiru orduko siesta egiteko aukerarik izango al duzu? Eta ni, hiru ordu –edo bat, edo bi, edo lau edo bost– lo eginda autoa hartuta hara eta hona ibiltzeko moduan al nago?

Goizean lanera joaterakoan haurra sehaskatik atera beharra etorriko zaigu. Arratsaldean joan behar dudun egunetan, berriz, gaueko hamarretan ama etxean falta izatea ere ez da atsegina. Zure gauak eta siestak moztuko dira. Baina lasai, aitak goxatuko zaitu, amonak ere bai. Beti sentitu izan naiz esker oneko hamaiketan oheratzeko duzun

ohituragatik; hartara ama etxeratzean beti izango dugu gure tarte. Abestu, ipuina kontatu eta "titi biritin" irribarreak trukatzu goxatzeko.

Kontuak kontu, sarri entzun izan dut amei ongi etortzen zaiela laneratzea, eta eskertzen dutela. Nik ere lanera joan nahi dut, baina egunero egun horretako gure etxeko erritmora joan nahi nuke lanera. Gure erritmotik ateratzen gaituen edozerk eragina baitu gure ongizatean, etxeko elkarbizitzan, laneko produkzioan, harremanetan, digestioan, arnas aparatuan, buru osasunean eta abar. Baina nola lortu hori? Gai potoloogia lerro hauetarako. Bakoitzak egin dezala bere gogoeta.

Matte-matte. ■





"Bada garaia bakarrik bizi garen emakumeok ez dugula ezer falta esateko"

IRENE LARRAÑAGA KAZETARIA ETA ARGAZKILARIA

Kazetaria ogibidez, argazkilaria afizioz. Bakarkako lehen erakusketa du *Insuladas*, eta Donostiako Aquariumean dago ikusgai, martxoaren 12ra arte. Bakarrik bizitzeko hautua egin duten emakumeak erretratatu ditu, pertsona horien osotasuna aldarrikatzeko. "Nire autoerretraturik ez dago, baina nahiko autoerreferentziala da erakusketa", dio.

Testua: **Ihintza Elustondo.**

Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea.**

Kazetaria ikasketaz, urte askoan ETBn lanean aritutakoa da Irene Larrañaga (Azpeitia, 1972), eta gaur egun, Tabakalerako komunikazio arduraduna da. Lantokia ez ezik, bizitokia ere Donostian du aspaldian. Ogibidea komunikazioaren arloan duen arren, betidanik izan du pasio argazkilaritza. Duela bost urte, beste urrats bat egitea erabaki zuen: lanean geldialdia hartu eta argazkilaritzari lotutako ikasketak gauzatu zituen. Eten horren emaitza da Donostiako Aquariumean ezarri duen *Insuladas* erakusketa. Erakusketa aretoan bertan, paretetan

itsatsita dauden emakumeen argazkiei miresmenez begira, eman ditu proiektuaren gaineko azalpenak.

Oroitzen al duzu noiz egin zenuen lehen argazkia?

Beti egin izan ditut argazkiak, bizitza guztian. 9 urte nituela, izeba-osaba batzuek argazki kamera oparitu zidaten, Polaroid bat. Ordutik beti izan naiz kuadrillako argazkilaria, familiakoa... Eta unibertsitate ikasketak egitera Iruñera joan nintzenean, argazkilaritza eskola batean izena eman nuen. Nire lana ere beti egon da irudiari lotuta; denetarik egin dut telebistan: *Sorginen laratzen* aritu nintzen, *Lo que faltaba* saioan, dokumentalak eta erreportajeak egiten,

albigestegietan... Eta bat-batean, 45 urterekin, erabaki nuen telebista albo batera utzi eta profesionalki argazkigintza ikastea. Bilboko argazkilaritza garaikideko zentro batean izena eman nuen, eta bi master ere gauzatu nituen: bat autore argazkigintzari lotutakoa, eta bestea dokumentalen ingurukoa. Orduan heldu nion serioski argazkigintzari.

Aldaketa horren emaitza da *Insuladas* proiektua. Zure lehen erakusketa al da?

Kolektiboan parte hartu izan dut zenbait proiektutan, baina bakarka prestatu dudana lehen erakusketa da *Insuladas*. 2018an, argazkilaritza ikasteari ekin nionean, nire artxiboa errepasatzen hasi nintzen, eta konturatu nintzen behin eta berriro argazki bat errepikatzen zela: joaten nintzen leku guztietan –izan Azpeitian, Donostian, New Yorken, Buenos Airesen...–, emakumeak erretratatzeko nituen, bakarrik. Ohartu nintzen emakumeak bakarrik agertzen zirela argazki pila bat neuzkala artxiboan eta nik erabakitzen nuela emakume horiek bakarka jartzea enkoatatzeko barruan. "Zergatik egiten dut inkontzienteki, neu konturatu gabe, behin eta berriro argazki bera?", galdetu nion neure buruari. Askotan esaten da argazkigintza badela argazkilaria lehiatzen edo ispilu bat. Ni aspaldian bakarrik bizi naiz, eta konturatu gabe, emakume haiek jartzen nuen begirada; nire bizitzeko era haiengan islatu nahi nuen.

Horretaz jabetu zinenean, zer egin zenuen?

Nahiz eta argazkietan bakarrik agertu, ez nekien emakume haiek bakarrik bizi al zirela, eta pauso bat eman nuen: ni bezala bakarrik bizi diren emakumeak ezagutzeko eta haiei argazkiak egitea erabaki nuen. Ez nuen nahi kaleko argazkiak egitea, baizik eta aurrez aurre jarri eta erretratuak lantzea. Gertu neuzkan emakumeekin hasi nintzen: lagunekin, ezagunekin, lagunak lagunekin... Mailolo, Maitere, Belen... Eskerrak eman behar dizkiet denei, nire kameraren aurrean batera lotsarik gabe jarri baitziren. Kazetari sena ere badudanez, hasieratik argi eduki nuen ez nituela erretratuak bakarrik gauzatuko, eta emakumei galdetegi bat egingo niela: zergatik bizi diren bakarrik, zer den bakardadea beraientzako, bizimodua aldatuko al luketen ala ez, zer abantaila eta desabantaila dauzkan bakarrik bizitzeak, pozik bizi diren ala ez... galdetu nien. Garbi neukan proiektuaren ardatza bakardadea osotasunean bizi duten emakumeak izango zirela. Ez nuen nahi bakarrik bizitzea

gauza negatibotzat dutenak elkarriketatzeko, beraiek hala erabakita bakarrik bizi direnak elkarriketatzeko baizik. Bakarrik bizitzea erabaki dute, baina horrek ez du esan nahi bakarrik sentitzen direnik.

Eta zergatik hartu du proiektuak Formenterako bidea?

Bakarrik bizi diren leku askotako emakumeak erretratatu ditudan arren, erakusketako argazki guztiak Formenteran [Balearrak, Herrialde Katalanak] aterata daude. Duela hamasei urte hasi nintzen oportetari hara joaten lagun kuadrilla batekin. Urteetan joan ginen, eta duela bederatzire urte, Formentera Fotografica jaialdiaren berri izan nuen. Azken zortzi urteetan urtero joan izan naiz jaialdiara. Eta, beraz, badut harreman berezia irla horrekin. Zer gertatu zen? Formenterako lagun bati kontatu nion bakarrik bizi diren emakumeak erretratatzeko ari nintzela, eta hark esan zidan Formenteran emakume pila bat bizi zirela bakarrik. Eta nik ezer jakin gabe, irlara iritsi nintzenerako, paper txiki bat prest zeukan, sei izen eta sei telefono zenbakirekin. Formentera oso irla txikia da, hemeretzi kilometro dauzka puntatik puntara, eta ahoz ahokoaren bidez, bakarrik bizi diren emakume ugari ezagutu ditut. Pixkanaka, hango erretratuak indarra hartzen joan zirela, eta orduan, erabaki nuen Formenterako emakumeekin bakarrik gauzatzea erakusketa. Proiektu osoago baten barruan sortutako azpiproiektua da, beraz, *Insuladas*. **Zergatik jarri diozu *Insuladas* –euskaraz, *isolatuak*– izena egitasmoari?**

Erakusketako protagonistak irla batean bizi diren irlak direlako, nahiz eta zubiak eraikitzen dituzten. Formenteran kokatu dut proiektua, baina baneukan beste leku batean kokatzea ere; izan ere, modu batera edo bestera, iruditzen zait denok bizi garela irla moduko batean. Bizimodua bakarka egitea erabakitzen dugunean, oso irla gara, eta horregatik izena du horrela proiektuak. **Zenbat argazki atera dituzu?**

Formenteran 38 emakume erretratatu ditut, eta guztira, 4.500 argazki inguru atera dizkiet. Erakusketako hormetan bost emakume ikus daitezke, baina proiektu bat ere badago, eta emakume gehiago ageri dira han. Galdetegiaren jasotako testigantzak ere jarri ditut argazkien ondoan. Bakarrik bizitzearen inguruan hartutako testigantzak dira, niretzako nahiko esanahi indartsuak dituztenak. Eta modu batera edo bestera, irla bera ere bada protagonista; emakumeekin egondako topaketeten ondoren,



**"45 URTEREKin, ERABAKI NUEN
TELEBISTA ALBO BATERA UTZI ETA
ARGAZKIGINTZA IKASTEA"**

**"OHARTU NINTZEN EMAKUMEAK
BAKARRIK AGERTZEN ZIREN
ARGAZKI PILA BAT NEUZKALA"**

**"EMAKUME BATEK EZ DU ZERTAN
IZAN INOREN ALABA EDO EMAZTE;
BAKARRIK BADA BAT ETA OSOA"**

han piztutako sentipenekin, irlan paseoak ematera joaten nintzen argazki kamera hartuta, eta argazki gehiago egiten nituen. Irlan argazki asko egin ditut, ez dago horrenbeste argazki atera ditudan beste lekurik.

Hainbeste argazkiren artean, nola aukeratu batzuk eta kanpoan utzi besteak?

Nire ustez, kontatu nahi dudana gehien kontatzen duten irudiak aukeratu ditut. Kontaketa egiterakoan, sartu naiz emakume horien bizitza pertsonaletan, baina iruditzen zait hori ez dela hain inportantea. Dena den, *insuladaren* izaera horretan badaude niretzako gakoak diren ezaugarriak, hormetan dauden bost emakumeen argazkietan islatzen saiatu naizenak. Erdian dago niretzako askatasunaren irudia dena: Barbarak 83 urte ditu, eta emakume askea da; besarkada bat da haren irudia. Marga beti itsasoari lotuta egon da, eta ondoan itsasargi bat dauka; oso emakume konprometitua da, eta modu batera edo bestera, bada argia. Mariak 94 urte bete ditu orain gutxi, hamar seme-alaba ditu, eta bertako baserritarra da; niretzako sustraia da, sustraituta dagoen emakumea. Tania, berriz, borroka da; feminismoan oso inplikaturik dagoen emakumea. Azken argazkian, iriatik kanpora begiratzen du erretrataturik emakumeak; etorkizunari beldurrik gabe begiratzen dion pertsona bat da. Ezaugarri horiek



denek osatzen dute *insulada* baten izaera; hori izango litzateke ideia orokorra.

Esaldi bat ere jarri duzu erakusketaren amaieran.

"Ez gaitzala ezerk definitu, ez gaitzala ezerk lotu. Askatasuna izan bedi gure berezko mamia". Simone de Beauvoirren esaldi bat da. Oso ondo definitzen du proiektua.

Zergatik ematen dizute atentzioa bakarrik bizi diren emakumeek?

Uste dut nire isla direla; horra joaten da nire begirada. Beste gauza asko ere egiten ditut, baina haiengan arreta jartzea barrutik ateratzen zaidan zerbait da, eta horregatik eman dut haiek ezagutzeko pausoa. Era berean, badauka aldarrikapen zentzu bat erakusketak: uste dut XXI. mendean badela garaia bakarrik bizitzea erabakitzen dugun emakumeok ez dugula ezer falta edo ez daukagula akatsik esateko. Horrelako bizimodua aukera daiteke. Proiektuko emakume gazteenak 23 urte dauzka, eta 94 zaharrenak. Jende gaztea nahiko libre sentitzen da bakarrik bizitzeko erabakia hartzeko, baina adin batetik aurrera, niri gertatu zaidan bezala, galdera askori erantzun behar diezu: "Zergatik bakarrik? Ez al daukazu bikotekiderik?". Eta ezagutu ditudan emakume batzuek badaukate bikotekidea, baina

bakarrik bizi dira. Uste dut geuri ere sinetsarazi digutela bakarrik bizi garenez zerbait falta zaigula, akatsen bat dugula. Erakusketako emakumeek korrontearen kontra egin behar izan dute erabaki hori aurrera eramateko, eta horren kontra, zer egin? Haien bizimodua kontatu; horixe da egin nahi dudana. Elkarrizketatutako emakumeek gehien erabiltzen dituzten hitzak dira *askatasuna*, *independentzia* eta *autonomia*, eta nabarmentzen dute bakarrik egoteko beldurrik ez dutela. Denek daukate zerbait komunean, eta horixe da, independentzia edo askatasun hori. Uste dut badela garaia hori kontatzeko; emakume bat ez da zertan izan behar inoren alaba edo emaztea, baizik eta bera bakarrik, bere esentziarekin, bada bat eta osoa.

Zer ikasi duzu bidean?

Batetik, emakume oso indartsuekin egin dut topo, eta asko jaso dut haiengandik. Eta, bestetik, neure bizitzan dagoeneko barneratuta neukan ikasgai bat sendotu da proiektuarekin: Formenteran asko ematen da ahizpatasuna, sororitatea. Izan ere, han bizi diren asko kanpotik joandakoak dira, eta beren artean oso saretuta daude. Zergatik? Hara joaten zarenean eta familia eta lagunak atzean uzten dituzunean, nahi eta nahi ez sare hori



berriro sortu behar duzulako, eta beren artean asko laguntzen dira. Hori ere ikasi dut bidean, sendotu egin behar dela sare hori.

Formenteran ere jarriko dute erakusketa. Ilusioa egingo zizun horrek, ezta?

Bai, sekulakoa. Irailaren 4tik 16ra bitartean izango da han ikusgai; data horietan *insuladak* beren etxera bueltatuko dira. Eta etorriko dira plaza gehiago; erakusketa mugitzea nahi dut, beste leku batzuetara ere eramatea. Adar gehiago ere etorriko dira; izan ere, nik ez dut itxiztat ematen proiektua. Erakusketa egindakoa erakusteko modu bat da, baina berez proiektua askoz zabalagoa da. Nire asmoa, hasieratik, liburu bat egitea izan da, eta beste salto bat izan daiteke dokumental bat egitea. Nire bizitzako proiektua da hau.

Zure autoerreturik ez al duzu jarri erakusketan?

Ez, baina asko biluztu naiz; ez bakarrik argazkietan erakutsi dudanakatik, baita egiten ari naizen kontaketatatik ere. Argazkietan dauden emakumeak ere biluztu dira nirekin, baita ni beraiekin ere; erretratuak egiterakoan, nork bere bizitza mahai gainean jarri dugu, harreman bat sortu da... Nire partetik asko dauka proiektuak. Bost argazki horietan ni banago, eta hori asko

kontatzea da. Nire autoerreturik ez dago, baina nahiko autoerreferentziala da lana; neu ere bertan egotea gehitxo litzateke, baina uste dut ni ere hor nagoela. ■■■

MOTZEAN

Argazki kamera bat? Hasselblad 500 C/M.

Argazki bat? *Emakumea banderarekin* (Tina Modotti, 1928).

Nori aterako zenioke argazkia? Kamera aurrean jartzeko parapetorik jartzen ez duen edonori.

Galtzeko toki bat? Beti, Formentera eta Buenos Aires.

Argazkilari ona izateko sekretua? Kamerarik gabe ere, begirada entrenatzea.

Argazkilari bat? Isabel Muñoz.

Argazkiak ateratzeko eguneko momentua? Eguzkia sartu eta ordu erdira.

Zerk pozten dizu eguna? Argiak.

Irudi batek behar al du hitzik? Barrura heltzen bada, ez.

Zuzentasuna



OIER ETXEBERRIA

Adimen artifizialak giza gaitasunaren oinarriak hankaz gora jarri ditu, autoestimua krisia eragin baititu gizakiak sortutako zerbait gu geu baino burutsuagoa izan daitekeela onartzeak. Jadanik, makinek ordezkaturako gaituzten beldurra klasiko bat da; pentsa, Eibarko garajeetan ehundutako sarea, makinak eraikitzeak gai diren makinak eraikitzea bideratuta dago. Piezak edo zatiak fabrikatu, puzzlea elkartu eta martxan jarrita, beste makina batzuentzako atalak egin ditzakete burdinazko tramankulu hauek.

Sektore honetan, zuzentasuna ezinbesteko ezaugarria da. Merkatuak, tresna zehatzak eskatzen ditu, pieza zuzenak egin ahal izateko, makina zuzenak behar baitira ezinbestean. Ezin eraiki daiteke makina zuzenik, ordea, horretarako lehengaitzat osagai okerrak erabili badira. Bestela esanda, arkatzez marraztu dezakegun lerroa, erabilitako erregelaren arabera da. Baina erregelen *Staedtler* fabrikari ezingo dituzte kalitatezko eskuadra eta kartaboiak sortu, horretarako plano aproposik ez badaukate.

Sorgin gupil horretan artisautza agertzen da. Historia liburuetan lurrin makinaren iraultzarekin zendutzat jo bazen ere, geroz eta gailu hobeak sortzeko, ezinbestekoak dira giza esku hartzea, ofizioen ezagutza eta pertsonen

jakinduria. Susmoa dut antzera gertatuko ote den garapen zientifikoaren gainontzeko arloetan ere.

Lerro eta plano perfektuak ekuazio matematikoetan soilik existitzen dira. Errealitate ukigarrian dena baitago oker, ardatz batzuk besteak baino gehiago.

Zuzentasuna termino erlatiboa da. Egiatzko gauzen dimentsioak definitzeko neurketa bat burutu behar da. Neurketa aparatua eredu idealtzat hartu eta aztertzen dihardugun elementua harekiko alderatzen da, zenbateko desbideraketa duen esanaz. Alegia, gauza guztien zuzentasuna, hori ebaluatzen erabilitako patroien arabera da.

Zenbaitek konparaketak gorrotagarriak direla dioten arren, geometriari bezalaxe eguneroko jokoaren nolakoa ere, alderatzen dugunaren arabera da. Horrela, azterketa gaitzitu ez izana ametitu daiteke, beste gelakideek ere nota eskasak atera badituzte. Gainontzeko estadio guztia horretan ari bada, epaileari txistu eta iseka egitea

**LERRO ETA PLANO
PERFEKTUAK EKUAZIO
MATEMATIKOETAN
SOILIK
EXISTITZEN DIRA**

normalizat hartzen da. Edo senide gazteenaren zintzotasuna anaia/arreba zaharragoaren etxeratze orduari zor zaio.

Zuzenbide estatuak elkarbizitzaren mesedetan, lurralde bateko lege eta arauak finkatzen dituen arren, inor gutxik erreparatzen die pergaminoetako mandamentuei, haietatik desbideratzeko ez bada. Orduan hasten da jurisprudentzia martxan, okerrak arrastoon sartzeko. Oro har, seguruagoa da burruntzi forma izatea, non eta ez zaren hurriz kimu bat, urriko ilberrian.

Edozein egoera definitzeko, aztertuko den esparruaren neurriak zein diren erabakitzen da, hots, sistema akotaturako dugu. Espazioan gure eremuak duen posizio absolutua ezezaguna denez, testuinguruaren barreneko koordenatu erlatiboak zehazten dira. Oinarri ezagun bat bermatu, eta gainontzeko kokapen guztiak haren arabera deskribatzeko.

Agidanez, nekeza egiten zait eguneroko galderei termino absolutuetan erantzutea: nolako proposamenei deritzedan ongi; zein pentsamoldetara lerratzen naizen, zerbait gustatzen ote zaidan... Arkimedesek kontrapuntu bat eskatzen zuen mundua mugitu ahal izateko. Niri ere emadazu erreferentzia bat eta erantzungo dizut zer moduz nagoen. ■



ostadar optika

OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

EGUZZI
belandenda
dietaetika
kosmetika naturala

Kale Nagusia, 67 843-50 34 47 **AZKORTIA**
Urbilario 9 bis 843-15 00 23 **AZPEITIA**

IRENE ALTUNA
SOLADENSA
Loidi-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.irenealtuna.com

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

KIRURI

JATETXE

Loiola hiribides, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tifinoa.: 943 81 5808
Faxa.: 943 15 03 62



Luba
administrativa

Analizatoritza
libreta
debeure
bonitate

Gestorj lavak

Finken administrasie

Gestie imobiliarie

Tel: 849 787 321 Fax: 849 787 373
E-mail: luba@euskaltel.net

**JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**

Aiertza Autoak
Behar duzun konfiantzazko talerrall!
Marka guztietako ibilgailuen konponketak
943-81 19 15
AZPETIA
aiertza@aiertzaautoak.com

 EUROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA

 **ARTE ETA
DISEÑU
ESKOLA
ELKARTEA**

Marrazkia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talla 18:30 - 20:00

Jose Artebe kalea, 3
943 81 29 08
arteetadiseinu@gmail.com
Matxikuta urte osoan zabalik

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak
Udako: 618 96 49 95 / Jan: 649 12 02 71
ika@instalanak@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA


 "KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Probatzeko hasi, eta 36 urte

1987ko urtarrilean hartu zuen Lagun Onak Mendi Bazkunaren tabernaren ardura Iñaki Alkortak. Azken 34 urteotan Juan Kruz Aginagalderekin batera atera du aurrera tabernako lana. Karnabalen ondoren, erretiroa hartu eta Mendizaleen tabernako lana utzi egin zuten. Mendizaleek ez dute taberna itxiko, arduradun berriek hartuko dute beren gain haren kudeaketa.

Testua eta argazkiak: **Nerea Uranga.**

Elkarrekin hitz egin behar zutela eta, afaritarako hitzordua jarri zioten Lagun Onak Mendi Bazkunaren zuzendaritza batzordekoek Iñaki Alkortari (Azpeitia, 1954). 1986. urtearen hondarra zen.

Ordura arte, Etxe Zurinekoan jardun zuen zerbitzari Alkortak, baina 1986ko abenduaren bukaeran eskuz aldatu zen taberna. "Iñaki Orbegozo *Txitxa*, Jesus Rezabal *Munatxo* eta Iñaki Portilla etorri zitzaizkidan hitz egiteko afaria egitea proposatuz. Mendizaleen soziedadearen ardura Esteban Kanposek zuen, baina hura lagatzekotan zela eta, elkartearen tabernaren ardura hartzea proposatu zidaten haiek".

"Asko pentsatu gabe" proposamena onartu eta 1987ko urtarrilean hartu zuen mendizaleen elkartearen Elizkaleko tabernaren ardura Alkortak. Aurretik ere bazuen eskarmentua tabernako barraren atzeko lanetan. "Beti Alai taberna zenean lanean jardundakoa nintzen anaiarekin, Bergaran ere bai taberna batean bi urtez, eta Etxe Zurinekoan sei urte egin nituen. Tailerrean ere jardun nuen, baina gutxi; ikasketak bukatu ostean hamasei-hamazazpi hilabete inguruan. Gainontzean, beti tabernan egin dut lana". Mendizaleen tabernan Ina Epelderekin hasi

zen lanean. "Inarekin Etxe Zurinekoan jardun nuen aurretik, eta pare bat urte egin zituen Mendizaleenean lanean. Hark utzi eta *Txapela* [Juan Kruz Aginagalde] hasi zen; harekin 34 urte egin ditut".

Elkartearen tabernaren funtzionamendu aldaketa Alkortaren lehen urteetan egin zen. Soziedade tankeran funtzionatzen zuen ordura arte, eta tabernako martxa eman zioten Alkortak eta Aginagalde. "Elkartearen zuzendaritza batzordekoek pixka bat aldatzea nahi zutela adierazi zidaten, taberna gisa jartzea eta bizi pixka bat ematea. Bi afari egin genituen elkarrekin, eta proba egingo nuela esanda hasi nintzen". Garai hartan, arratsaldeko seiak aldera irekitzen zuten taberna, eta zabaldu orduko hasten zen jendea elkartzen. "Zahar jendea etortzen zen. Ardo botila hartu, kaxuelitaren bat-edo ekartzen zuten prestatuta, hura berotu eta mahaiaren bueltan jarrita egoten ziren mokadua eginez. Sukaldeak soziedade gisa funtzionatzen zuen hasieran, eta gure lana tabernako martxa eramatea zen; jendeak kanpotik ekartzen zuen jatekoa. Gero, pixkanaka aldatzen joan ginen; taberna estilora hasi ginen martxan, geuk jatekoa prestatuz eta taberna jendearentzako zabalduz", gogoratu



Iñaki Alkorta, Mendizaleen tabernan.

ditu Mendizaleen tabernako lehen urteak Alkortak.

Lehen urteetan aldaketak izan baziren ere, urteen poderioz "taberna kontua itxuragabe" aldatu dela dio Alkortak. "Orduan egunero zegoen zerbait; astegunetan mokadu bat egitera etortzen zen jendea edota karta jokora. Txikiteoa ere izaten zen. Gaur egun, ordea, astegunetan ez dago ez txikiteorik, ez gainontzekorik. Lehen Elizkalean bertan Uztarrinekoa ere bazen, baita Egurtzanekoa ere, eta mugimendu gehiago izaten zen; egun, baina, kalearen barrenean Mendizaleetakoak bakarrik gelditzen da. Eguraldi txarrarekin jendeak gutxiago irteten du kalera, eta onarekin, berriz, terrazetan jartzen da, eta kitto! Lehen astegunetan ere berandura arte izaten genuen taberna zabalik, baina azken aldian 22:30erako itxi egin izan dugu, eta lehenago ere itxi zitekeen".

Astegunetan, hiletek piztu izan dute Mendizaleen tabernako bizitza. Parrokia gertu, hiletaren bat izan denean antzeman izan dutela

azaldu du Alkortak. "Herriko jendeak ohitura handia du hiletara joan aurretik eta haren ondoren zerbait hartzera Mendizaleen tabernara joateko. Noren hileta den ere antzeman izan dugu pixka bat; izan ere, hiletara datorrena kanpokoa baldin bada, Etxe Zurinera-eta gehiago joaten da. Tristea da esatea, baina hiletak direnean jende pixka bat ikusi izan dugu tabernan, baita urteurreneko mezak izaten direnean ere".

Alkortaren ustez dena aldatu da urteen poderioz, baita beraiek ere. "Gu geu ere zahartzen ari gara, eta normala den bezala den gazteek beren tokiak dituzte. Dena aldatu da. Gure adinekoak astegunetan kalean ikustea oso arraroa da, ezinezkoa. Lehen beste bizimodu bat zegoen kalean, beste bizipoz bat; garai batean, jendea lanetik tabernara joaten zen zuzenean, egunero-egunero".

Asteburuetan buru-belarri

Astegunetan ez bezala, asteburuetan eta festetan lana franko egin izan dute Alkortak eta Aginagaldek Mendizaleen tabernan. Ostiraletan,

larunbatetan eta igandeetan eman izan dute jaten, "afariak bakarrik". Bezero fidel asko izan dituzte, eta gustura dago horrekin Alkorta. "Asko dira behin eta berriro errepikatzen dutenak; asko gazteak dira. Noski, kalea bertan gelditzen zaie; bertatik bertara daude mokadu bat egin eta parrandarako. Gainera, atzetik datozen gazte askok ikasi dute Mendizaleen tabernarakao bidea. Bezeroei dagokienez, ez daukagu zertaz kexatu. Jaten emateko kontuarekin egin dugu aurrera guk, baina zahartu egin gara eta erretiratu egingo gara, eta orain tabernari musikarekin-eta helduko dion gazte jendea jarri behar da". Asteburuak "fuerteak" izan ohi dituzte, eta denbora gutxian "tratua" hartu behar izan dutela dio.

"Horrelakoetan, minak eta nekeak ahaztu eta aurrera egin behar da, zer erremedio".

Festa kontua ere asko aldatu da Alkortaren arabera, baina kanpotik herriko festetara jende asko etortzen denean, herritarrek Mendizaleenera joateko joera dutela esan du. "Herriko jendeak badaki lokala handia dela, zabala, dantzan eta saltoka ibiltzeko aproposa. Festetan dena bete izan da herriko jendearekin".

Urteko egun guztietan zabaldu izan dute taberna, egun bakar batean ere itxi gabe. Azken hiru urteetan, ordea, Gabonetan pare bat egunetan atseden hartu dute. "Oraintze dela hiru urtera arte, grebaren bat deituta zegoenean bakarrik ixten genuen taberna; gainontzean urte guztian irekita edukitzen genuen. Azken hiru urteetan, baina, Eguberri egunean eta Urteberri egunean egun guztirako itxi dugu, familiarekin bazkaltzeko", kontatu du. Konfinamendua ezagutzea ere egokitu zaie, ordea, eta taberna itxi beharra. "Itxialdia egur galanta izan zen denontzat, baina ostalariontzat itxuragabea".

COVID-19ak eragindako pandemia aurretik hasita zeuden kaleko eta tabernako kontuak aldatzen Alkortaren arabera. Dena ez du horrek eragin, haren aburuz: "Areagotu bai, baina eragin ez. Jendea errazago gelditzen da etxean. Internetarekin dena eskura du jendeak. Garai batean, telebistan itxurazko futbol partida bat ematen zutenean, jende piloa etortzen zen tabernara, bai Real ikustera, baita beste talderen baten partida ere. Orain, Internetarekin sakelako telefonoan ere ikus dezakete neurketa".

Gabonetan "arrakasta handiko" mus txapelketak antolatu izan dituzte tabernan Alkortak eta Aginagaldek: Gabon egunean bata eta Urtezahar egunean bestea. Jendeak muserako zaletasun

handia zuela ikusita, txapelketak antolatzea erabaki zuten orain dela 30 urte edo. Aurreneko urteetan, ostiraletan hasi ziren txapelketak egiten Mendizaleen tabernan, eta "txapelketa ona" antolatzea otu zitzaien gero. "Gabonetako mus txapelketetan 90-100 bikote inguruk parte hartu izan dute; arrakasta ikaragarria izan dute hitzordu horiek". Azkena aurreko Gabonetan antolatu zuten. "Azken edizioan inoizko parte hartze txikiena izan da; 78 bikote aritu ziren lehian. Asko da, baina normalean Gabon eguneko txapelketan 82-84 bikote elkartu izan dira, eta Urtezaharretakoan, berriz, 120 bikotera ere iritsi ginen behin. Kanpotik ere jende asko etorri izan da musera".

Lan handia da horrelako mus txapelketa bat antolatzea, eta enpazteko 70 bikotek parte hartu behar dute gutxienez, Alkortaren arabera. Dena den, "pena merezi" duen lana dela uste du.

"Askotan, gure artean txantxetan komentatu izan dugu taberna utzi eta mus txapelketak antolatzea dedikatu beharko genukeela; jendea orduan aspertu egingo litzateke baina...". Gaur egungo gazteen artean muserako zaletasuna badagoela dio: "Muslaria zaharra zela esaten zen, baina orain gaztea ikusten da musean ikaragarri, baina batik bat txapelketetan, bestela ez hainbeste".

Mendizale elkartearen egoitza

Azpeitiko mendizale elkartearen egoitza da taberna; 1973ko abenduaren 16an zabaldu zuen Lagun Onak Mendi Bazkunak gaur egun Elikalean duen lokala. Alkortak tabernan jardun duen urteetan, elkarteak antolatutako ekintzekin izan du lotura. Mendi irteeretako izena emateko tokia izan da taberna, eta hainbat mendi astetako proiektzioak edota hitzaldiak egin izan dituzte han. "Egun, mendi irteeratarako izena Internetez eman ohi du jendeak, baina orain dela urte batzuk jende asko etortzen zen tabernara ordaintzera edota telefonoz deitzen zuen. Dena den, oraindik bakarren batzuk etortzen dira izena ematera edota galdetzeraz", azaldu du tabernariak. Gainera, Lagun Onakek tabernaz gain, egoitza ere badu leku berean, baina banatuta.

Karnabalen ondoren utzi zuten Alkortak eta Aginagaldek Mendizaleen tabernaren ardura, eta arduradun berriak hartuko dute haien lekukoa. Azken 36 urteetan tabernaz arduratu denak erretiroa hartuko du, baina mendizaleen elkarteak taberna ez du itxiko. Probatze aldera



Mendizaleen tabernaren sarrera.

ALKORTAK MENDIZALEEN TABERNA HARTU ZUEN GARAIAZ SOZIEDADE GISA FUNTZIONATZEN ZUEN

hasitako lana hiru hamarkada eta erdikoa izan da Alkortarentzako. Lan horrek badu alde onik haren ustez: "Herritarrekin duzun harremana da tabernako lanaren alde ona. Batzuetan, ordea, apaizaren edota psikologoaren lana egitea ere egokitu izan zaigu. Gogorra da lana, baina entretenigarria. Denborarekin, adinak ere eraginda, eta gauza nola aldatu den ikusita, ilusio gutxiagorekin jardun dut".

Erretiroa hartuta ere, zer egina topatuko duela dio Alkortak. "Garai batean ibiltzera dezente joaten nintzen, eta hori utzita daukat. Anaiak aurrekoan hala esan zidan: 'Hi nirekin hasi pantanoari-eta bueltaka'. Mendizaleetako tabernako barra utzita, asmatuko omen du denbora zertan pasatu, horretan ez du zalantzarik. ■





ALDATU BEHARRA, HOBETO BIZITZEKO

MIRENE BEGIRISTAIN ETA IORITZ AIZPURU

Tokiko elikagaien kontsumoa bikoiztu egin da azken urteetan, hala diote datuek. Bertako ekoizle txikien eta horiek ekoitzitakoa kontsumitzearen aldeko apustuaren sendotasuna, ordea, ezbaian dagoela uste dute Mirene Begiristainek eta Ioritz Aizpuruk. Energiaren trantsizioa elikaduraren trantsiziorik gabe ezin dela egin ere uste dute, baina urruti ikusten duten elikadura burujabetza.

Testua: **Mailo Oiarzabal.**

Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea.**

Bertakotik elikatuz bertakoa elikatzea onuragarria ez ezik beharrezkoa, ezinbestekoa, dela sinesten dute Mirene Begiristainek (Andoain, 1972) eta Ioritz Aizpuruk (Azpeitia, 1983). Premiazkoa, krisi ekologikoaren testuinguruan, eta krisi hori eragin duten hainbat faktoreri aurre egiteko tresna ere bai. Teorikoki zein modu praktikoa ari dira ideia horren alde lanean. Ekonomian doktorea, EHUKo irakaslea eta ikertzailea da Begiristain Getariako bizilaguna, Biolurreko kide ere bai, eta elikadura sistemak dira bere ikerketan esparri nagusietakoa; Aizpuru, berriz, Azpeitiko Azoka Plazako Elikagunea saltokia kudeatzen duen Artxara kooperatibaren sortzaileetakoa eta kidea da.

Elikadura sistema irauli beharraz aritu dira parean eta pareko, baina hori erakundeen eta eragileen ausardiarik gabe eta gizartea bera eraldatu gabe nekez iritsiko dela uste dute.

Tokikoa, bertakoa, gertukoa, 0 kilometroa... Kontsumoari lotuta gero eta sarriago entzuten diren kontzeptuak dira. Zergatik da garrantzitsua horiek kontuan hartzea?

Mirene Begiristain: Ahoz aho dabil bizi dugun krisi ekologikoa, eta gure kontsumoak izugarriko inpaktua du krisi horretan. Garrantzitsua da



horretaz jabetzea, gure eguneroko kontsumoak, eta tartean elikagaiek, izugarrizko garrantzia dutela krisi ekologikoan. Izan ere, egun jaten dugunaren %95 baino gehiago kanpotik dator, eta milaka eta milaka kilometro egiten dituzte elikagaiek. Zentzu horretan, tokikoa kontsumitzearen garrantziaren zergatia da geure bizitzak hobetzea, eta bertako produktuekin sortzen dugu aukera hori.

Ioritz Aizpuru: Krisi ekologikoa, krisi energetikoa bolo-bolo dabilzan honetan, elikadura burujabetza edo bertako produktuen kontsumoa agente politiko eta sozial denek agendan gorritz jarri beharreko kontzeptuak eta apustuak direla iruditzen zait, esku artean ditugun arazo horiei irtenbidea emateko gakoetako bat direlako.

Eta ari al gara kontuan hartzen? Antzematen al da kontzientzia aldaketarik?

M.B.: Bai, sumatzen da. Kontzientzia handitu da, eta hori datuetan ikusten da, gainera. Tokiko produktuen kontsumoa bikoiztu egin da azken urteetan. Aztertzekoa da zer faktorek bultzatzen duten horretara. Badakigu printzipala ez dela guk aipatu dugun arrazoia. Faktore kolektiboak, krisi ekologikoa eta, ez dira arrazoi nagusiak. Faktore indibidualak dira, gehien bat, aldaketa bultzatu dutenak: osasuna, norberaren ongizatea... Dena dela, datuek erakusten dute gora egin duela tokiko produktuen kontsumoak, eta ikusi besterik ez dago saltoki handietan bertako produktuek eta produktu ekologikoek zer-nolako presentzia hartu duten; eta horrela gertatu da saltoki handi horiek merkatu-hobia ikusi dutelako hor. Hala ere, proportzioa oso txikia da. Gainera, kontuan hartu behar da elikagaiei gure errentaren %15 eskaintzen diegula; beste partida batzuek, etxebizitzak eta garraioak, garrantzi handia hartu dute azken urteetan. Azken hamarkadetan erdira jaitsi da gure errentatik elikagaiei eskaintzen diegun kopurua. Beraz, badago kontzientzia handitze bat, badaude horretan positiboki eragiten ari diren faktoreak, eta tokikoa eta ekologikoa merkatu produktu bihurtu dira; baina, aldi berean, errentan elikagaiei eskaintzen diegun garrantzia ez da handitu.

I.A.: Kontzientzia aldaketa horren adierazle dira herriz herri edo eskualdez eskualde bertako produktuak sustatzeko sortzen ari diren proiektuak ere.

Mirenek komentatu bezala, nabaria da supermerkatu handietan bertako produktuen edota produktu ekologikoen presentzia gero eta handiagoa dela. Baina produktuen presentzia bera baino areago, nabarmenduko nuke azalera handiko saltokiek nola baliatzen dituzten produktu horiek publizitatea egiteko; amu gisa erabiltzen dituzte, jabetu direlako herritarrak kontzientziatzen ari direla. Beste kontu bat da bertako produktuen aldeko apustua benetan egiten duten ala ez.

M.B.: Bai, nabarmena da ez dela gauza bera. Ez da bakarrik zer erosten dugun, baita non erosten dugun ere; eta horrek izugarrizko garrantzia dauka, elikadura burujabetzarekin zerikusi handia dauka. Gure euro bakoitza non jartzen dugun, ekonomia noren eskutan uzten dugun, garrantzitsua da. Energiarekin bezala, ikusi behar dugu zer trantsizio egin nahi dugun elikadurarekin. Tokiko proiektuek izugarrizko garrantzia dute erabakigune gisa ere, ez baita bakarrik zer produktu eskaintzen diren, baizik eta zer eraikitzen den, zer ekonomia eraikitzen dugun horrekin.

Tokiko ekoizle txikiak eta kontsumitzaileak gerturatzeko hainbat saiakera egiten ari dira: kontsumo taldeak, azokak biziberritzeko proiektuak... Kontzientzia duen edo hartzen ari den jendearengana iristen dira horrelakoak, baina publiko orokorragoarengana iristeko lana egiten al da? Zer bide jorratzen dira edota jorra daitezke?

I.A.: Uste dut hor sentsibilizazio lan handi bat dagoela egiteko, lehen aipatu dugun larrialdi ekologikoari aurre egiteko edota bertako ekonomia sustatzen duela azpimarratzeko. Hainbeste maite dugun Euskal Herri berde hori, mendiak, soroak... Jendea kontziente izan behar da lehen sektorerik gabe gure ingurumena ez dela bera izango. Era berean, kontziente izan behar dugu gure plateretan jartzen dugunak zer eragin daukan esparru desberdinetan. Niretzat, gakoetako bat litzateke hezkuntzan apustua egitea.

M.B.: Landa eremua jaten dugunaren, gure elikadura sistemaren ispilua da, azken finean. Uler-tu behar da dena dagoela elkar lotuta, ikuspegi integrala edukitzea oso garrantzitsua da. Nolako elikadura, halako nekazaritza esaten da. Hezkuntza da gakoetako bat, eta gatazka handia dago



Begiristain eta Aizpuru, Azpeitiko Zelai Luzen.

"Egun jaten dugunaren %95 baino gehiago kanpotik dator, milaka kilometro egiten dituzte elikagaiek"

"Euro bakoitza non jartzen dugun, ekonomia noren eskuetan uzten dugun, garrantzitsua da"

"Energiaren trantsizioa elikaduraren trantsizioarekin batera pentsatu behar da"

Mirene Begiristain

uneotan eskola jantokien gaiarekin. Eskola jantokiek bertako produktuekin lan egin ahal izatea ahalbidetuko duen Eusko Jaurlaritzaren dekretuaren zain gaude urteetan. Gure Platera Gure Aukerak izugarrizko lana egin du azken urteetan, proiektu pilotuak ere badira martxan, baina ez da lortzen hori orokortzea. Eta funtsezkoa da, eta erosketa publikoarekin lotuta joan behar du. Landa eremua askotan erabiltzen da folklore kutsuarekin, baina egin daitezke gauzak politika publikoetatik, eta eskola jantokiak eta erosketa publikoak tresna oso indartsua dira zentzu horretan. Horiez gain, eta Biolurren ari gara horretan lanean, baserritarrentzat ekoizpen duina eta kontsumo herrikoia garatu behar dira. Hau da, ezin da izan elikagai ekologikoak eta osasuntsuak pribilegio bat izatea; eskubide kolektibo bat dira. Garrantzitsuak dira norberak elikagaiekin lotuta hartu beharreko erabakiak, baina era berean, elikagai horiek eskuragarriak izan behar dira, eta gaur egun ez da horrela.

Ekoizleak eta kontsumitzaileak gerturatzeko aipatutako egitasmoetako bat da Elikagunea. Bost urte bete berri ditu Azpeitiko Azoka Plaza berrituan txertatutako proiektuak. Zer balantze egiten duzue orain artekoaz?

I.A.: Balorazioa positiboa da. Egia esan, beldurrarekin hasi ginen: proiektu berria zen, antzeko beste esperientzia batzuk ezagutzen genituen, baina ez Elikagunearen berezitasunak zituenik; baserritarren plaza batean sartu behar genuen... Baina lehen egunetik eskuak zabalik hartu gintuzten, bai baserritarrek, bai herritarrek, laguntzeko prest, gainera. Laguntasun eta elkarlan horri esker egin dezakegu bost urteon balorazio positiboa. Hiru langilek ekin genion bideari, eta gaur egun zortzik osatzen dugu lantaldea, 400 familia bazkide dira kooperatiban eta 150 bat ekoizleren produktuak eskaintzen ditugu. Beraz, uste dugu aurrera begira apustu berriei heltzeko oinarria behintzat jarri dugula.

Zer jaso duzue azokako ekoizleen partetik? Antzeman al dute alderik haiek?

I.A.: Elkar elikatzen dugula ulertzen dugu guk. Herritarrek azokan aurkitu ezin dituzten zenbait produktu eskaintzen ditugu Elikagunean, horrela beren erosketak osatzeko aukera dute haiek,

eta modu horretan jendearen joan-etorria ere handiagoa da Azoka Plazan. Bestetik, baserriarrek aukera dute azokan ez dauden egunetan ere beren produktuak Elikagunean eskaintzeko. Urte hauetan ikusi ditugu beren ekoizpena egokitu edo handitu duten ekoizleak; edota produktu berriak lantzen hasi direnak, eskaera bazegoela antzemanda. Gauza horiek dira, benetan, gure proiektuari zentzua ematen diotenak, eta guri lanean segitzeko ilusioa eta indarra ematen digutenak. Esan dezakegu familia bat osatu dugula.

Azoka tradizionalek asko pairatu dute kontsumo ohituren eta bizi baldintzen aldaketa. Ekoizleek garatu al dituzte ohitura berrietara egokitzeko tresnak? Edo, zer tresna beharko lituzkete?

I.A.: Azpeitiko gure esperientziatik, ikusi dut baserriarren eta ekoizleen partetik garai eta ohitura berrietara egokitzeko prestutasuna. Beren produktuak Elikagunean saltzen hasteko proposamena egin zitzaizenean zein Enkargug proiektua martxan jarri zenean, prestutasuna izan dute baserriarrek. Baina denok bezala, laguntza eta bultzada behar dituzte ohitura berrietara egokitzeko.

M.B.: Izan ere, azokek izugarritzko eragin ekonomikoa eta soziala dutela iruditzen zait. Azpeitian ikusten da, eta Tolosan ere ikusten dela uste dut: azoka bete egin da, ez da bakarrik eraikin bat egin edo azpiegitura bat berri dela, prozesu sozial bat eman behar da, eta Azpeitiko nabarmena izan da. Horrek erakusten du azokak espazio biziak direla, eta landu egin behar dela berak [loritzek] aipatzen zuen hori guztia. Uste dut baserriarrek egokitu direla, ez bakarrik teknologia berrietara, baita produktuen eskaintzari dagokionez ere. Kontsumo ohiturak aldatzen dihoazela ikusi dute eta produktu berriak eskaintzen dituzte. Baina, era berean, ikusten da azoketako batez besteko adina zein den; Gipuzkoako azoken azterketa bat egin genuen eta bailara guztietako azoketan ikusten da, landa eremuaren ispilua da hori ere. Gai konplexua da, baina azokak biziberritu nahi baldin baditugu, landa eremua biziberritu behar dugu. Azoka oso espazio politiko eta kultural garrantzitsua dela

iruditzen zait, eta asko daukagula ikasteko, adibidez, Azpeitiko prozesutik.

Bakoitzak zeuen esperientziatik ikusita, zein dira gaur egun lehen sektoreko ekoizle txikien zailtasun nagusienak?

M.B.: Motzean esateko asko dira. Lehen esan dudan moduan, uste dut horrelakoetan interesgarria dela elikadura sistemari bere osotasunean begiratzea, gauzak elkar lotuta daudelako, zer arazo sortzen diren eta arazoak nola elkar elikatzen diren. Hala ere, baserriarren arazoez ari garenean badaude bi edo hiru gako. Lan baldintzak dira horietako bat. Baserriarren lan baldintzak prekarioak dira, oso zailak. Izan ere, baserriarrena ez da bakarrik lanbide bat, bizimodu bat da, bizimodu horrek izugarritzko garrantzia dauka gizartearentzat, eta horrek duen balioa ez da kontuan hartzen. Lan baldintza duinak sortzea oso-oso garrantzitsua da, behar den erreleboari heldu nahi badiogu. Urola Kostan, azken urteetan, ia ehun baserri edo ustiategi itxi dira.

Asko dira, ezta?

M.B.: Asko dira, baina beste hainbat eskualdetan gertatzen ari den gauza bera da. Erreleboari eusteko, lan baldintzak hobetu egin behar dira, eta gai horrek estrategikoa izan behar du politika publikoetan. Emakume baserriarren egoera espezifikoa ere ezin da ahaztu. Genero ikuspegitik, baldintzak are zaurgarriagoak dira emakumeen kasuan. Lan eremu maskulinizatua da, eta rolek eta estereotipoek asko markatzen dute emakume batek landa eremuan ekoizpen proiektu bat martxan jarri nahi duenean. Baserri edo ekoizpen proiektu batean norbaitek kotizatu izan badu gizonezkoa izan da, emakume asko jubilazio eskubiderik gabe geratu dira. Bestetik, Ticket Bai denon ahotan dabilen honetan, uste dut garrantzitsua dela burokratizazioak baserriarrei eragiten dizkien zailtasunak aipatzea. Ez da posible baserriarrei eta ekoizleei behin eta berriz horrenbeste oztopo iristea administrazioetatik goitik behera, digitalizazioak horrenbeste konplikatzea beren egunerokoa.

I.A.: Elkarritzeta honetara etorri aurretik ekoizle bati galdetu diot, "zailtasunen inguruan eta, zer aipatuko huke?", eta "papeleoa" izan da



"Jendea kontzientze izan behar da lehen sektorerik gabe gure ingurumena ez dela berdina izango"

"Ikusi dut baserritarren eta ekoizleen partetik garai berrietara egokitzeko prestutasuna"

"Proiektuak bideragarri egiten ditugu, baina ez dakit zenbateraino egiten ditugun bizigarri"

Ioritz Aizpuru

haren erantzuna. Lan baldintzen gaiari eutsiz, zaharkituta dago lehen sektorea, batez besteko adina ia 60 urtekoa da. Gazteak sektore-erakartzeko, nik beti esaten dut lehendabizi lehendik dauden ekoizleen lan baldintzak hobetu behar direla, horrela erakarriko dugula jendea. Izan ere, proiektuak bideragarri egiten dira, baina ez dakit zenbateraino egiten diren bizigarri. Uste dut badagoela zeregina, eta baldintza horien hobekuntzaren ondorioz lortuko dugula erreleboa sektorean.

M.B.: Gainera, gizartea aldatzen ari da, eta aldatu egin da gazte batek bere bizitza nola eraiki nahi duen ere. Lehen sektoreari dirulaguntza asko ematen zaiola esaten da, baina dirulaguntza gehienak ustiategi handientzat izaten dira, ez baserritar txikientzat, nahiz eta txikiak diren gehiengo; eta bizi baldintza hobeak sortzen laguntzen du diruak. Horrez gain, behar dituzten bestelako azpiegiturak, lan burokratikoak, osasungintzako baldintzak... ekoizle txikien beharretara egokitu beharko lirateke. Gauza asko egin daitezke lan baldintzak errazteko.

Eta horiek egiteko borondaterik ba al da administrazioetan?

M.B.: Orokorrean gutxi, esango nuke. Udalerriek ez dute konpetentzia askorik lehen sektoreari lotuta gai horietan.

I.A.: Eta beste erakundeekin alderatuta, bai ikusten dela borondate gehiago herri mailakoetan. Orain arte aipatu ditugun proiektuak, Elikagunea eta Azoka Plaza Azpeitian, adibidez, udalaren, eragileen eta ekoizleen arteko elkarlanari esker gauzatu dira. Baina Mirenek esan duen bezala, eskumen asko ez daude udalen esku, eta beste maila horietan borondate gutxiago dago.

M.B.: Eta asko egin daiteke, Euskal Herrian badaudelako konpetentziak aldundien edo Eusko Jaurlaritzaren esku. Adibidez, lehen aipatu dugun eskola jantokien gaian, edo osasun baldintzetan, burokratizazioaren ingurukoetan, kontsumoaren kontzientziari lotutakoetan... gauza asko egin daitezke.

I.A.: Eta lurrak lortzeko dauden zailtasunetan sartzen bagara... Beste ordu batzuetarako izango genuke elkarriketa.



M.B.: Arazo larria da hori, bai. Gazteek lurralde eskuratzeko dituzten zailtasunak izaten dira arazo handienetakoa.

Elikagaietan ere, ia mundu osoko produktuak daude eskura, eta askotan hemengoak baino merkeago. Nola egin aurre horri?

M.B.: Ekoizle txikiek asko landu dute autonomia, eta hori alde dute. Ez dute ekoizle handiek, bereziki eredu industrializatuagoa dutenek, insumoekiko duten dependentzia, eta asko laguntzen die horrek. Analisisaren bat egin da horren gainean, eta ikusi da krisiaren ondorioz gehiago parekatu direla produktu ekologikoen eta konbentzionalen prezioak. Tokikoa eta zuzeneko erosketa, uste dut hori dela kontsumitzaileak duen bidea.

I.A.: Hori da. Merkaturatze bide laburrak erabiltzea da gakoa, zuzeneko salmenta azoka edota kontsumo taldeen bitartez edota Elikagunearen gisa ahalik eta bitartekari gutxien erabiltzen dituzten proiektuen bitartez. Bestetik, askotan ez gara kontziente munduaren beste puntatik iritsi eta merkeago diren produktu horiek zenbat bitartekari dituzten tartean, eta bestaldeko puntan dagoen ekoizleak zuk ordaindu duzun prezio horretatik zer parte txiki jaso duen. Askotan ez gara kontzientze produktu horiek erosten ditugunean eragiten dugunaz: kutsadura, ekoizlearen lan baldintzak...

M.B.: Emakume baserritar batek esaten zidan: "Merke? Nik uste garesti irteten ari zaigula". Ez dira kontuan hartzen beste lurraldeetako baserritarrengan, ingurumenean eta gurean, gure osasunean, zer inpaktu eragiten diren. Jaten dugunak osasunarekin ere lotura zuzena du, izan ere. Beraz, merke? Garesti irteten ari zaigu, epe luzean.

Elikadura burujabetza bada helburua, egungo abiapuntutik, zer pauso eman behar dira ezinbestean epe motz-ertainean?

I.A.: Erakundeek zein eragile sozialek erabaki ausartak hartu behar dituzte, eta pausoak eman, bai kontsumoan, bai ekoizpenean. Horrek eskatzen du ekoizleen aldeko apustua egitea, ekoizleei erraztasunak ematea, lehenetik dauden ekoizleen baldintzak hobetzeko eta ekoizle berriak erakartzeko. Bertako produktuen kontsumoa sustatuko duten politikak jarri behar dira martxan. Mila gauza daude egiteko.

M.B.: Elikadura burujabetza hitz potoloa da. Izan ere, gauza bat da bertakoa jatea, eta beste bat elikadura burujabetza. Autonomia izatea da kontua, eta landu dezakegu bertako produktuarekin autonomia; baina beste kontu bat da hartzen diren erabakien gainean zenbaterainoko kontrola duen herriak. Hori da elikadura burujabetza, geuk erabakitzea noiz, non eta nola ekoizten den, eta horrekin sortzen den balioa non gelditzen den. Eta hori oso urruti daukagu. Baina, loritzek esaten zuen moduan, estrategia bat landu behar da; zerbait falta badugu horixe da, estrategia bat. Egitasmoak sortzen eta garatzen dira, baina halako akupuntura moduko bat dira, ez dago epe luzerako planifikaziorik. Energiaren trantsizioa elikaduraren trantsizioarekin batera pentsatu behar da, lurraldearen planifikazioak zutabe bat izan behar du.

I.A.: Elikaduraz ari garenean, oinarrizko gauza batez ari gara. Herri gisa elikadura sistema bat definitzeko eta erabakitzeke gai ez bagara, zer erabaki behar dugu, zer jan eta nola ekoiztu erabakitzeke gai ez bagara?

Estrategia aipatuta, 2030erako Euskadiko elikadura sistema iraunkorrerako lkerketa eta Berrikuntza Estrategia osatu dute hain-

bat erakundek eta eragilek, eta lanketa hori gidatu dutenetako bat zara zu, Mirene.

M.B.: Hainbat eragilarekin Europa mailako proiektu batean parte hartzeko aukera izan genuen. Ikerketaren emaitzak Europako Batzordera iritsi ziren eta han bazegoen aditu talde bat. Hemengo lantaldearen emaitzen ondorio nagusietako bat errepikatu zuen aipatutako aditu taldeak: korapilo handiena ez da teknologikoa, ezta ekologikoa ere, korapilo handiena soziala da; berrikuntza sozialean dago gakoa. Horretaz jabetzea garrantzitsua da. Bestela, ematen du krisi honetatik teknologiak salbatuko gaituela, eta tentazioa ederra da, berdin jarraitzeko eta ezer ez aldatzeko. Baina aldaketak gure antolaketa sozialetik etorri beharko du.

Bertakotik elikatzeak zer ematen dio gizarteari?

I.A.: Osasuna, ingurumena, herri gisa nortasuna... Gure elikadura sistemak, zeharka, horietan guztietan eragiten duela esango nuke. Mila arrazoi daude bertako produktuak kontsumitzeko, eta mila arrazoi dauden neurri berean, mila onura eskaintzen dizkio gizarteari bertakoa kontsumitzeak.

M.B.: Hobeto bizitzea. Garai konplikatuak dira, kezkaz, beldurrez eta ezjakintasunez beteta bizi garela ematen du, erabakiak hartzeko beldurrez, dauzkagun pribilegioak galduko ote ditugun. Baina ausardia aipatzen zuen



loritzek, eta uste dut hobeto bizitzeko aukera bat eraikitzea dakarrela bertatik elikatzeak. Hobeto bizi gaitzeko deshazkunde logika horretan; beste era batera, baina hobeto. ■



Ikusi esklusiban Mirene Begiristani eta loritz Aizpururi egindako elkarriketa QR kodea eskaneatuta.





Euskararen plaza gara, herriaren irudia eta komunitatearen ahotsa

B
BALEKO

K
KARRARA

erlo
ERLO

MAXIETZEN
MAXIETZEN

U KH
URDIA KOSTAKO
HITZA

LI
LUTARRIA

Zh
ZARAUZKO
HITZA



**HEDABIDEEKIN
ERE BAI**



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara martxoaren 17a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.
Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Otsaileko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 36. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Iraia Bereziartua bazkidea izan da irabazlea.



URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Gauza asko ikusten ditugu, guk ere badugu aitorpen-sekretua"

ANTONIO URBIETA AUTOBUS GIDARIA

Zerbitzari lanetan hasi bazen ere, autobuseko gidariaren eserlekuan ezagutu du hainbat eta hainbat azpeitiarrek Antonio Urbieta. Gaur egun, bere ahotsa ere ezaguna zaie Euskadi Irratiko entzuleei.

Testua: **Elena Margüello**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**.

Antonio Urbieta (Azpeitia, 1967) gidariak hainbat eta hainbat azpeitiar eraman ditu hara eta hona urte luzez. 18 urtera arte ikasten jardun ondoren, ikasten jarraitzeko "gogorik ez" zuela esan zion aitari, eta hark, orduan, lanean hasi beharko zuela erantzun zion. Horrela, Garmendipe tabernan zerbitzari lanetan hasi zen Urbieta. Urtebetera, baina, Ondarbide taberna alokairuan hartzeko aukera "suertatu" zitzaion, eta bertan ezagutu zituen garai hartako Escudero autobusetako Joxe Antonio eta Maixabel: "Tabernako bezeroak ziren, eta zerbitzari lanak egiten jarraitzen nuen bitartean, autobuseko eskolako zerbitzuak egingo al nituen aipatu zidan Maixabelek".


Modu horretan hasi zen Urbieta gaur egun bere lanbide den horretan lehenengo urratsak egiten. Ondarbidetik bost urtez zerbitzari lanak egin ondoren, eta kiroldegiko tabernan beste zazpi urte gauzatuta, 30 urterekin bilakatu zen autobus gidaritza azpeitiararen ogibide bakarra.

Gaur egun, 04:10 aldera esnatzen da, eta eguna hasteko, Zarautzitik Getariako fabrika batera eramaten ditu langileak. Gero, gaueko txandako

langileak ateratzen direnean, haiek Zarautzera eramaten ditu, eta autobusa aparkatu ondoren Andatza kafetegian gosaltzen du. Gosaldutik ostean, Arroako industria poligonoan "siesta txiki bat" egiten du "irratia entzun bitartean", eta esnatzen denean eskolako zerbitzuei ekiteko "prest" egoten da. Arroa Goiko, Iraetako eta Zestoako DBHko ikasleak hartu eta "autobusa goraino beteta" joaten da Azpeitira. Gero, hurrekin autobusean begirale lanetan aritzen den pertsona jaso, eta Urrestillatik eskolara eramaten ditu umeak; eta, azkenik, Damaso Azkuen eta Astotegian egiten ditu geldialdiak bi leku horietan diren ikasleak ere eskolara eramateko.

Egunaren arabera, txangoetara ere eraman behar izaten ditu haurrak, eta eguerdian eta arratsaldean berriro ere goizean egindako bide berberak egiten ditu ikasleak etxera itzultzeko. Asteburuetan, berriz, kirol partidak, mendizaleen ibilaldiak, ezkontzak, Errioxara bidaiak edota mojekin txangoak egiten ditu: "Denetik egiten dugu".

Autobus gidari ogibidetik gehien gustatzen zaiona "jende asko ezagutzen eta harreman ugari egitea" dela aitortu du. Horrez gain, "oso ume zalea" dela ere adierazi du, eta hurrekin "bonba"





pasatzen duela. "Egun guztia umeeekin pasatu beharko banu, agian, pisutsua egingo litzaidake; ez dakit, ez dut-eta probatu. Guk bide motzak egiten ditugu, eta bitarte horretan ondo pasatzen dut beraiekin", esaj du gidariak. Horrenbeste urtetan haur asko ikusi ditu hazten, eta horrek "poz" ematen dio Urbietari, nahiz eta bestalde, "zahartzen" ari dela ere pentsatzen duen: "Eskolara eramaten nituen haurren seme-alabekin egiten dut lan orain, eta hori gustura hartzen dut".

Hala ere, lanbideak badu bere alde zaila ere: "Egoera batzuetan jendea alde batetik bestera eramatea". Autobus gidariaren hitzetan, haurrak eskolara eramatea "oso polita" da, baina jendea ezkontzetara eramatea ere, baina "agian, ez da hain ederra horiek ezkontzatik bueltan eramatea", esan du Urbietak. "Gauza asko ikusten ditugu gidariok. Apaizek eta medikuek bezala, guk ere badugu aitorpen-sekretua", kontatu du barre artean.

Baditu, ordea, kontatu daitezkeen "milaka" pasarte. Sagardotegitik bueltan, autobusean lo hartu eta garajera joandakoan autobus barruan aurkitu zuen behin mutil bat: "Lagunek ez zioten abisatu antza, eta nik eraman nuen autobusaren garajetik Azpeitira". Beste behin, emakume bat muletekin eraman zuen ezkontza batera, eta handik muletarik gabe itzuli zela gogoratu du, barrez. Beste ezkontza baten ondoren, autobusa garbitzen ari zela, berriz, zapata bat aurkitu zuen.

Urrestillan ere badu anekdotarik Azpeitiko autobus gidariak. Hark azaldu duenez, egunero jotzen du bozina han, "garai bateko butano

banatzaileak bezala". Kale barrenera iristean bozina jotzen hasi eta horrela zeharkatzen du kale guztia goizetan, eguerdian eta arratsaldeetan. Sasoi batean, ordea, norbait "kexatu" egin zela eta, bozina jotzeari utzi zion Urbietak: "Gurasoak berriro ere bozina jotzeko eskatzen hasi zitzaizkidan, eta guraso talde batek kexatu zen pertsona harekin hitz eginda, bozina joka hasi nintzen berriro ere". Urbietaren arabera, "asko" dira bozina entzundakoan etxetik jaisten diren bizilagunak Urrestillan.

Irratian autobusetik

"Urteetan" entzun du Urbietak Euskadi Irratia, eta pandemia garaian, autobus zerbitzu batetik bestera "asper-asper eginda" *Argi Ibili* saiora deitzea bururatu zitzaion. Garai hartan Maialen Otermin kazetariak gidatzen zuen saioa, eta lehenengo dei hura eta gero "ahotsa gustatu zitzaiola eta gustura egon zela" esan zion; nahi zuenean deitzeko berriro ere. Gerora, Azpeitiko eguraldiaren inguruko audioak bidaltzeko proposamena egin zioten irratitik, eta ordutik "egunero" bidaltzen du Whatsapp audioa txoferrak.

05:50ean bidaltzen du audio mezua Getariatik, baina 04:30ean begiratzen du kotxeak zenbat gradu markatzen dituen. Gertatu izan zaio egunen batean audioa ez bidaltzeagatik jendeak "non dago Antonio?" galdetzea, "bai azpeitiarre, baina irratiko gainerako entzuleek ere". Mezu honekin esnatzen dira hainbat euskal herritar astelehenetik ostiralera bitartean: "Egun on, Edurne, Antonio naiz. Azpeitian zero gradu eta euria ari du. Bueno, besarkada bat Martini eta Juanitari. Ondo izan zaitezte, eta pozik bizi! Agur!". ■■■

Antonio Urbietak

- **Adina:** 55 urte.
- **Ikasketak:** Batxilergoa, selektibitatea eta EGA.
- **Lanbidea:** Autobus gidaria.
- **Autobus gidaria ez banintz...** Abeltzaina edo artzaina, gustura. Orain, bi hankako abereak zaintzen ditut [barrez].
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Etxekoekin egon, afari merienda egin eta ohera. Jai egunetan Errezilgo baserrian gozatzen dut.



URRATEGI
INTERIORISMO
barras diseña

Arretxe 9
20730
Azpeitia
943-85 72 44

Arrogueta 27
20600
Eibar
943-85 72 44



www.urrategiinteriorismo.com

dica www.dica.es



Irudi engainagarriak



Hamar txatal hauen artean erdiak (5) irudi nagusitik hartuta daude eta beste erdiak ez. Bereiz itzazu.

Sudokua

Z		H		K	
	I			Z	H
A		I			
	H		I		T
	K			T	
H				K	A

Liburuetan HITZAK aurkitzen dira, ezta? Bete hutsuneak hitz hori osatzen duten hizkiak (H, I, T, Z, A eta K) taki egokian jarri. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.


ALdea dago!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak, 13 dira guztira.




NORK ZER

Gure laguntxoek liburu baina irakurri nahi dute. Zein hautatuko du bakoitzak?



HANDIENETIK TXIKIENERA

Lagundu bikote honi bere liburuak opalean ordenatzen. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienera 9. Bide batez, beheko irudia margotu.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Elkarrekin ibiltzen



MIREN SEGUROLA

Otsailaren 8an egin zuen lehen bilera Azpeitiko Euskara Mahaia.

Euskara Mahaian parte hartu zuten lagunek, alegia. Mahaia hantxe egon baitzen, geldirik eta isilik, mahaia egon ohi diren moduan. Euskara Mahaia bidea egiten hasi dela ere irakurri genuen nonbaiten, eta antzekoa pentsatuko zuen akaso norbaitek: herri santu honetan badirela oraindik ere San Inazioaren garaian bezainbesteko kontu xelebreak. Ibiltzen diren mahaia edota bidea egiten duten mahaia!

Kontuak kontu, eta serioago jarrita, benetan ederra da Euskararen Mahaia lehen urratsek ekarri dutena. Herriko hainbat taldetako eta elkartetako ordezkariak eta hezkuntzako eragileak ez ezik, zenbait euskaltzale ere elkartu baitzen Basazabal jauregian egindako bileran. Euskara Mahaia sortzea eta egonkortzea da Azpeitiko Euskararen Plan Estrategikoan jasotako lehentasunezko egitekoetako bat, eta egiteko hori betetzera heldu zen lehen bilera hura.

Beste herri askok aitortu duten moduan, eredugarria da

Azpeitiko Kultur Mahaia. Udalak jartzen ditu baliabideak, baina motorra herritarrek dira, eta herritarrek eta herriko eragileek hartzen dituzte erabakiak. Eredu hori euskararen alorrera ekarri nahi izan du orain Azpeitiak. Izan ere, 150 lagun bildu zituen parte hartze prozesuaren ondotik sortu zen Euskararen Plan Estrategikoa: etxe guztietara galdetegia bidali, eta ondoren herritarrekin talde dinamikak antolatu eta bilerak egin, euskararen inguruko beharrak eta kezkak jasotzeko. Plan horri udalerrri osoko ikuspegia emateko, esparru guztiak aintzat hartzeko eta herri mailako akordioa bilatzeko bidea abiatu da. Batez ere hiru arlotan eragin nahi da: herritarren kontzientzia,

**POZGARRIA DA
ERAGILEAK,
HERRITARRAK ETA
UDALA ELKARREKIN
LANEAN HASTEA**

bizilagun berriak euskaratik herritartzeko beharra eta haurren eta gaztetxoek hizkuntza ohiturak.

Azken batean, euskararen normalizazioan eta biziberritzean aurrera egiteko, Azpeitian erabakiak elkarrekin hartzea da Euskararen Mahaia asmoa. Euskara lau haizetara zabaltzeko egin beharreko lana adostea, saretuta, denen artean. Udalak bakarrik ezin du lan hori egin. Eskolek bakarrik ezin dute lan hori egin. Herriko taldeek eta elkarteek bakarrik ezin dute lan hori egin. Euskaltzale sutsuenak ere ezin du bidea bakarrik egin.

Aldiz, plangintza elkarrekin adostuta eta herri mailako akordioa bideratuta, uzta ederragoa izan ohi da. Ideiek ez dute aurrera egiten antolakuntzarik gabe. Eta horregatik da pozgarria eragileak, herritarrek eta udala elkarrekin lanean hastea, Azpeitia euskaldun izaten jarraitzeko behar-beharrezkoa izango delako. Guztiok batera ekitea, mahai berean bilduta, bidea elkarrekin egiteko eta urrun iristeko modua da. Elkarrekin ibiltzeko gonbidapena. ■



Gerentzia-postuetan emakumeak %6a bakarrik izatea ez da preskakuntza edo lidergo faltagatik. Erakundeetan gizonezkoen pribilegioak eta rola betikitzen direlako baizik.

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna

EMAKUMEAK GORA

emakumeakgora.eus

#emakumeakgora

erabe alava
Bizkaja
Euzko Legebiltzaria
Euzko Legebiltzaria
Euzko Legebiltzaria

Komunikazioa, euskara eta kultura, uztarri bakarrean

TESTUA: **MAIALEN ETXANIZ**

ARGAZKIAK: **UZTARRIA**

Martxoan 25 urte bete dira Uztarría Azpeitiko Kultur Koordinakundea sortu zela. Hain zuzen, 1998ko martxoaren 3an sortu zuten koordinakundea, 1997ko urritik bilerak egiten aritu ondoren. Hain zuzen, euskararekin, kulturarekin eta komunikazioarekin zerikusia zuten hainbat azpeitiarrek sortu zuten Uztarría, hiru ardatzen bueltan lan egiteko: komunikazioa, euskara eta kultura. Hiru lan arlo horiek uztarri berean lotu zituen koordinakundeak.

Garai hartako Azpeitia ez zen egungoa bezalakoa. Euskarazko komunikazioaren arloan hutsune nabaria zegoen: ez zegoen herri aldizkaririk, ezta Interneteko ataririk ere, eta herriko telebistak, Kaito telebista zenak, bere kontura egiten zuen lan. Euskarari dagokionez, ez zegoen egiturarik, ez Udal Euskara Patronaturik, ez euskara elkarterik, ezta euskararen normalizaziorako plan estrategikorik ere. Kultur arloan antzekoa zen panorama; Kultur Etxerik ez zegoen, kultur taldeen arteko koordinazioa urria zen eta kultur arloan plangintzarik ez zegoen.

Testuinguru horretan sortu zuten Uztarría kultur koordinakundea, identifikatutako hutsune horiek betetzeko asmoz.

Uztariaren sortze prozesuan eta garapenean parte hartu zuen kideetako bat da Enekoitz Esnaola (Azpeitia, 1970) kazetaria, eta hark gogora ekarri ditu koordinakundearen hastapenak, ibiliak eta lorpenak. "Sasoi hartan, gaur bezala, oso herri euskalduna zen Azpeitia. Bazeuden kultur taldeak, eta bazegoen gauzak egiteko dinamika. Euskaraz hitz egiteko joera zuen jendeak, baina egiturak falta ziren, baita elkarlanerako kultura politikoa ere. Hau da, ez zegoen elkarren berri izateko kultura politikorik, elkartzekoa eta, batez ere, elkarrekin pentsatzekoa. Horrez gain, gabezia zehatzak zeuden: ez zegoen euskara elkarterik, ez normalizazio planik, ez azpiegiturarik...", kontatu du Esnaolak.

Hori dela eta, euskararen, kulturaren eta

**1998AN SORTU ZUTEN
UZTARRIA KULTUR
KOORDINAKUNDEA,
HERRIAN ZEUDEN
GABEZIEI ERANTZUTEKO**

komunikazioaren inguruan lanean zebiltzan hainbat herritar eta eragile elkartu eta batera hausnartzeari ekin zioten: "Euskal Herrian Euskaraz (EHE) taldearen bueltan genbiltzan zenbait kide elkartzen hasi ginen. Batzar irekiak egin genituen jendeak horietan parte hartu eta iritzia eman zezan. Askotariko norbanako eta eragileak elkartu ginen hastapen haietan, batzuk EHEekoak, beste batzuk Azpeitian Gazteok Zer? taldekoak, beste hainbat kultur taldetakoak... Hausnarketa eta bilera ugariaren ostean, 1998ko martxoan aurkeztu genuen Uztarría kultur koordinakundea. Handik hilabete batera, proiektua herriratzeko asmoz, jaialdi jendetsua egin genuen Azoka Plazan".

Ekiteko eta egiteko modua

Aurrez aipatutako hiru ardatzen bueltan egiten zuen lan koordinakundeak –euskara, kultura eta komunikazioa–, eta antolaketa zehatza zuen. Talde eragilea zen motorra, eta bertan parte hartzen zuten kultur taldeetako ordezkariak eta norbanakoak. "Nahiko bilgune zabala zen", kontatu du Esnaolak. "Herria artxipielago bat bezalakoa zen: irla pila bat



1998an, Uztarrria kultur koordinakundearen aurkezpenean, Joxe Ramon Larrañaga eta Enekoitz Esnaola.

zegoen, eta guk txalupa hartu eta denak elkartu genituen".

Koordinakundea martxan jartzerako, proiektuaren "norabidea" zehaztuta zuten, baina ez zuten plan estrategikorik egin. Horretan "asmatu" zutela uste du Esnaolak: "Lanean hasi ginen aurrez izugarritzko plan estrategikorik idatzi gabe, eta uste dut asmatu genuela horretan. Norabide zehatza hartu genuen herrian eraldaketa eragiteko asmoz, eta hastapenetan egin genuena baino garrantzitsuagoa izan zen nola egin genuen. Herriko taldeekin bilerak deitu genituen, Udal Gobernuarekin zein oposizioarekin bildu ginen, baita sentsibiltate desberdinetako norbanakoekin ere. Egiteko modu hori oso garrantzitsua izan zen, eta balio izan zuen proiektua herriratzeko eta atxikimendua

lortzeko. Lanean hasi ginen, eta proiektuak bata bestearen atzetik etorri ziren".

Hasieran, lan arlo bakoitzean egitasmo bati heldu ziotela kontatu du kazetariak: "Komunikazioan, Uztarrria herri aldizkaria sortu genuen. Inkestak eta galdeketak egin genituen aurrez, eta jendeak parte hartu zuen horietan; 400 erantzun inguru jaso genituen. 1999ko azaroan plazaratu genuen aldizkariaren lehen zenbakia. Kulturean, hasteko, bi gauza egin genituen. Alde batetik, Basazabal jauregian Kultur Etxea sortzeko proposamena egin genuen; txosten mardula garatu genuen horretarako. Bestetik, Kulturaldia antolatzen hasi ginen, herriko kultur taldeak modu kolektiboan jarduteko eta koordinatzeko. 2002an egin zen aurreneko Kulturaldia. Gerora, 2004ko ekainean, kultur

programazioa koordinatzeko lanari ekin zion Uztarrriak: kultur karteldegia, direktorioa, urteko egitarauaren mapa... Euskararen arloan, hasieran ez genuen gauza askorik egin, baina sortu eta bizpahiru urtera Baite euskara elkarteak sortzea bultzatu zuen Uztarrriak. Uste genuen egitura zabalak behar zirela euskara sustatzeko". Baitek eta Uztarrriak bat egin zuten 2003ko azaroan.

Uztarrria "zerbait berria" izan zela adierazi du Esnaolak, eta jendeak "harrera ona" egin ziola du gogoan. "Sentipen onak genituen. Elkarleen, taldeen nahiz askotariko norbanakoen bilgunea zen. Hasieratik esan genuen ez zela inoren aurkako proiektua, herritarrok herritar guztiontzat sortutako egitasmoa zela, eta, horrenbestez, zabala izan behar zuela. Hala ere, lehen unetik zehaztu genuen norabidea, eta kritika batzuk ere



Goian, Uztarria kultur koordinakundea osatzen zuten herriko kultur taldeetako ordezkariak. Uztarria herri aldizkariaren erakusketa, erdiko irudian. Behean, III. Kulturaldiaren une bat, eta Uztarria aldizkariaren aurkezpena, 1999. urtean.

jarri genituen mahai gainean. Udalak hasieran errezeloz begiratzen zuen proiektua: 'nor dira hauek?' pentsatzen zuen, baina harremana ona izan zen, eta horren erakusle da Uztarria herri aldizkaria sortu eta

denbora gutxira udalarekin hitzarmena sinatu izana".

Hamar urtetan hamaika lorpen
2008ko martxoaren 8an Uztarriak kultur koordinakunde izateari utzi zion, "helburuak

beteta". Ordurako sortu berria zen Kultur Mahaiak hartu zuen kultur arloan lanean jarraitzeko ardura. Euskara arloan hainbat egitura sortuta zeuden, eta Uztarria komunikazio talde izatera igaro zen. Hamar urteko

ibilian kultur koordinadorak zer-nolako lorpenak pilatu zituen galdetuta, alde batetik, lorpen zehatzak aipatu ditu Esnaolak, eta, bestetik, kultura politikoa aldatu izana azpimarratu du: "Kultura politiko berri baten hastapenak bizi genituen urte haietan, eta horrek gerora eragin handia izan du hainbat arlotan. Herrian lanerako giro positiboagoa sortu zen, nolabait". Lorpen zehatzak ugari izan ziren: besteak beste, udal euskara teknikariaren postua egotea, Udal Euskara Batzordea eratzea, Udal Euskara Patronatua sortzea, euskararen normalizazio planak egitea, Uztarrria aldizkaria kaleratzea, Uztarriaren webgunea martxan izatea, urteetan zehar hogeitaka liburu eta liburuxka biografiakoak argitaratzea, *Urola Kostako Hitza* [Hitzaeren sorrera bultzatu zuen Uztarriak], *Aho bizarrik gabe* egitasmoak utzitako ikus-entzunezkoak...

Uztarrria aldizkariaren jardunaz hizketan, Esnaolak aipatu du "kalitatea" izan zela lanerako ardatza hasieratik: "Euskara kalitatearekin lotzen genuen. Jendeak ez zuen

Uztarrria irakurri behar euskarazkoa zelako soilik, baizik eta ona ere bazelako. Modu horretan, herritarrek informazio onaren bila jo eta euskaraz irakurriko zutelako. Ez genuen lan egiten euskararen militantzari begira bakarrik, kalitateari begira ere egiten genuen lan".

Oraina eta etorkizuna

Herria zertan aldatu dan galdetuta, "euskaldunon normalizazioa" aipatu du Esnaolak. Kulturaren arloan, Kultur Mahaiko taldeen eta Kulturaz kooperatibaren lana nabarmendu du: "Herri mugimenduak kudeatzen duen kooperatiba daukagu herrian, izaera oso parte hartzailea duena eta azpiegitura handien kudeaketaz arduratzen dena. Hor daude Sanagustin kulturgunea, Soreasu antzokia eta Dinamoa sormen gunea. Euskarazko kultur dinamika bizirik daude Azpeitian, eta horiek artikulatzea da hurrengo erronka". Euskararen normalizazioan "urrats nabarmenak" egin direla uste du, eta bide horretan, Uztarriak ekarpena egin duela dio:

"Euskaldunak gara, eta euskaraz bizitzeko tresnak sortzea ezinbestekoa da, izan kultur arloan zein komunikazioan. Zentzu horretan, Uztarriak lortu du euskara normalizatzea herrian". Dena den, kontzientziazioan eta euskararen normalizazioan etengabe eragiteko beharra dagoela azpimarratu du Esnaolak, eta aipatu du herrian "hutsunea" dagoela:

"Euskararen arloan, beste pauso bat eman beharra dago. Herrian tresna pila bat daude, baina ez dago euskara talderik. Gizartea asko ari da aldatzen. Kezka hori bageneukan duela 25 urte ere, eta zenbait gauzatan asmatu den arren, datuek diote euskararen erabilera jaisten ari dela herrian. Beraz, horrek erakusten du beste pauso bat eman beharra dagoela. Uztarriak egin zuen ekarpena, Natul euskara taldeak ere bai [2014tik 2018ra], baina aurrera begira arlo horretan lanean jarraitzea ezinbestekoa izango da".

2020. urtetik, Urolako Komunikazio Taldea (UKT) kooperatibako parte da Uztarrria. ■

bertako
igogailuak | ascensores

-REKIN BAI!

DROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baita: mantentze-lan profesionalak
- Baita: benetako 24/7/365 zerbitzuari

GIPUZKOA
943 903 450
www.bertako.eus

SOKA LUZEAN



AMAIA ALBERDI

Haize bidezko polinizazioa

Lehertzeaz da eztanda horia. Polen zakuak bete-beteta daude, hego haizea noiz etorriko zain. Behin haize ufada hori iristean, hauts horixka batek estaliko du dena –autoa, bide ertza, arropak...–.

Landareak mugitu ezin direnez, polinizazioa – polenaren sakabanaketa– baliatzen dute ugaltzeko. Polen alea zelula ugalkor arra da, eta loreetako obulua, zelula ugalkor emea, ernaltzea da bere funtzioa. Ondoren, elkarrekin horren emaitza da hazia.

Polinizazioa gauzatzeko bitartekariak baliatzen dituzte landareek. Polenaren transferentzia egiteko estrategia ezberdinak badaude ere, horietako bat haizearen bidezkoa da: anemofilia. Haizearekin erraz zabaltzeko eta ernalketa ziurtatzeko, landareek pisu gutxiko polen asko ekoizten dute. Hala ere, anemofilia zaharra da eta ez oso efizientea. Harrigarria da: mila polen aletik bakarira iritsiko da dagokion lorera, eta gainontzekoak alferrik galduko dira.

Martxoan hasi eta ekaina bitartean irauten du polinizazio garaia. Landare talde batek polena zabaltzeko behar duen

denbora, ordea, ez da horrenbestekoa. Anemofiliarako une zehatzak dituzte landare taldeek, baina polen ale ezberdinak beren artean nahas ez daitezzen, ez dira gainjartzen. Hori dela eta, guztira, lau hilabeteko luzapena du eztanda horiak.

Irakurle batek baino gehiagok ez du gustuko izango guztia horitzen deneko garaia, tamalez, polenarekiko alergiak agertzen direneco unea ere badelako. Gizakion sistema immunologiakoak elementu arrotz bat hautematen duenean, eta horrekiko oso sentikorra denean, zenbait erreakzio abiatzen ditu; erreakzio multzo horri deritzo alergia.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen %12k dio alergia polenari, eta urtetik urtera kopuru hori gero eta handiagoa da. Azken ikerketa batzuen arabera, ingurumeneko kutsadurak badu horretan zerikusia. Ingurumeneko kutsadurari aurre egiteko, estres proteina ekoizti dute landareek; substantzia hori polenean islatzen da gero, eta polenak sorrazten duen erantzun alergikoa gogorragoa da. Zaindu dezagun, beraz, zaindu gaitezten. ■

BOTEPRONTOAN



IGNACIO ARAKISTAIN

Efemeridea ate joka

Balio beza hilabete honetako nire aleak ohar gisa. Urte hasierak gure herrira ekarri ohi duen festa usaina jada gainetik kenduta, bada 2023. urteak ekarriko dizkigun hainbat efemerideri eta urteurreni erreparatzeko garaia. Historian gertatua oroitzea herritar gisa dugun eginkizun eta betebeharrak garrantzitsuenetako bat da. Garena aldarrikatuz gabiltzan garaiotan, gure mundu ikuskera ezarri nahi izateaz gain, ezinbestekoa deritzot kate luze baten arboila nimiñoak besterik ez garela barneratzea, eta balioa ematea iraganean beren lanagatik eta eginagatik nabarmendu ziren azpeitiarrei.

Nork ez du ezagutzen eliz atarian dagoen mudejar estiloko kanpoalde dotorez jantzitako etxea ala Urrestillako epizentroa den plazaren izena? Herriko musika eskolak ere azpeitiar ezagun honen izena du. Duela 500 urte zendu zen Juan Antxieta musikari errenazentista apartaz ari naiz, noski. Aurten, bost mende beteko dira garaiko polifonisten artean onenetakotzat jotzen den artistaren heriotzatik. Erabili beharko genuke urteurren borobila haren biografia zabalak eskaintzen dituen datuak azpimarratzeko eta bere musika ezagutarazteko. Ea hala den. ■

TiEN21ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com

DOAN EZ DA DEBALDE



**ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.**

bazkide@ukt.eus o 943-81 38 41